Aspaldiko lagunen bisita

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2008 ipuin bakoitza bere egilearena
© edizio honena: Susa

Lehen edizioa paperean: 2008ko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Hitzaurrea

Niretzat, irakurtze zale, liburua makutoko ohiko bizilagun neukala, literatur aldizkariak deskubrimendu handia izan ziren. Biziak ziren, lotsagabeak, ausartak eta batez ere hurbilekoak. Artikuluak, ipuinak, poemak, testu motzak, collage kalifikatzen zailak... neurria norberaren momentura egokitzeko modukoa zen, eta gertutasuna handia. Eta, zergatik ez esan, agitazio kutsua ere bazerien.

Idazleentzat eskailera moduko bat ziren literatur aldizkariak, liburuetara *igotzeko* zurubia. Gaur egun desagertu egin dira ia gure makutoetatik –makutoak ere desagertu diren bezala–, eta zuzenean igogailuan doa idazle berria liburua argitaratzera. Garai batean, eskuarki, literatur aldizkarien abaroa bilatzen zuen. Hurbilagokoa zen. Eta errazagoa zen publikatzea. Ipuin edo poemaren batzuk idatzita izanez gero, ezagunen baten ezagunaren bitartez helduko zinen aldizkari batean *mugitzen* zen norbaitengana, eta zure testua argitaratu.

Guk 80etan ezagutu genuen batez ere, baina aldizkarien bitarteko literaturaren hedapena betidaniko fenomenoa da munduan. Literaturako izen handi diren askok aldizkarietan eman zituzten argitara beraien ipuinak eta poemak, eleberriak atalka, XIX. eta XX. mendeetan. Baita literaturaren euskal auzoan ere. Era guztietako testuak biltzen dira aldizkarietan, baina dudarik gabe ipuinak plazaratzeko formatu ezin egokiagoa izan da. Eta halaxe, ipuin mordoa dago literatur aldizkarietan emana.

Aldizkariak, ordea, errazago galtzen dira liburuak baino, edo beste era batera esanda: errazago botatzen dira zakarretara eta sutara. Besterik gabe ahantziak edo sekulan liburuetara eramanak izan ez diren testu andana dago bazterretan. Geurean, *Susa* aldizkarian, ale batzuk bai.

Susa aldizkarian argitaratutako baina sekulan liburuan inprimatu gabeko ipuinen antologia xume bat atondu dut, 25 kontakizun hautatuta, «idazle bat / ipuin bat» irizpide arruntari jarraikiz. *Susa* aldizkariak 1979ko abenduaren azken egunetan agertu zuen lehen zenbakia eta 1994ko abenduan 33.a, azkena; beraz, orain

dela hogei urte pasa kaleratutako kontakizunak dira hona ekarritako gehienak, duela hamalau urtekoa da berriena. Denak gai, asmo, molde eta estiloz oso ezberdinak.

Flakoa da memoria; edo berriari tokia egin beharra dauka. Gogoan neuzkanak baino gehiago ziren ahaztuta nituen ipuinak, orain miraz berrirakurri ditudanak. Baina, bere flakezian, badu gordailu ezkuturik ere. Lerro batzuk irakurri eta ipuin osoaz akordatu naiz behin baino gehiagotan.

Beren lehendabiziko literatur lanak *Susa* aldizkarian argitaratu zituzten idazleak dituzu bilduma honetako batzuk; liburu askoren idazleak dituzu beste batzuk, dagoeneko narratzaile ezagunak eta laudatuak; liburu bakanen egileak ere bai; edo literatur libururik argitaratu ez dutenak: Iñaki Uriarte, Joserra Utretx, Mikel Untzilla, Jon Baltza, Amagoia Gurrutxaga, Mikel Reparaz; are ezagutu ere egiten ez ditudanak eta neure lagunei galdetuta ere nor diren arrastorik aurkitu ez diedanak: Pepe Zulaika eta Jose Luis Orokieta.

Ez dut ez autore ez estilo konpendio bat egin izan nahi. Ez naiz ahalegindu gai ezberdin guz-

tiak ekartzen, garai guztiak islatzen. Aspaldiko lagunekin akordatuta, ipuinak berrirakurri ditut –batzuk irakurri, ezinbestean, ez neukan Susa aldizkaria osorik leitua!–, eta ahogozo ederra utzi didaten 25 aukeratu. Ez naute garai batera eraman, nostalgian murgilarazi. Neronek ekarri nahi izan ditut, bisitan, garai honetara. Bisitan, bertan gelditzeko. Aspaldiko lagunak ditugulako eta, batez ere, ondo ematen dutelako.

MIKEL ELORZA

Pinpilinpauxa betiko

Josu Landa

Susa 21 / 1987ko uztailean

Emakume biak sukalde leihoko burdinetatik begira zeuden; ondoko patioan obratan ari ziren langileei beha. Porlana bota eta bota ari zireneko patio hura gizonezkoena zen, baina hobetze lanengatik hilabeteaz itxita gorde beharra aldarrikatua zuten presondegiko juntakoek. Zuzendaritzakoek ate pisu eta erdi herdoilduan ipinitako oharrari («Patio honek giltzapeturik iraungo du aste batzuetan»), baten batek boligrafoz beste zerbait gehitua zion: «Txapatua dagoena ez da patioa, neure burua baizik». Karmeni eta Maiteri, hantxe, labean pizza zurtz eta soil batzuk barneratzen zituzten bitartean, ezinezkoa zitzaien jakitea ea paperean idatzitako hari buruzkoa benetakoa zen edo ez, kondaira hutsa izatea zitekeena baitzen, baina mojetako batek

halaxe zela kontatu zien bezperan. «Tira, Karmen, ez egon leihotik hainbeste denboraz begira, pioiak ez ditun Robert Redford eta!». Eguzkiak gogor jotzen zuen patioan, eta langile batzuen kamisetak bera-bera zeuden bezala, besteen larruazal belztuetan izerdia argi-erreflexu urruna bilakatzen zen. Pioi bat hormigongailu txiki batetik ur mangera kendu eta palakada harea botatzen hasia zen. Kapataza, elastikoaren tiranteek tripari ezin eutsiz, gerizpean zegoen, erdipurdiko freskotasunean egunkari atzeratua irakurtzen... kapelaren hegalak aurpegi erdia estaltzen zion. Ez ziren Karmenen begiak, baina, guzti hori ikusten ari zirenak.

– Galdera bat egin nahi nizun aspalditik, Maite, baina ausartzea ere... –joanda bezala, Karmenek leihoko bost burdina lodietan tinkatu zituen begiak harrezkero–. Begira, neska, gizonezkoen artean norma da, baina uler ezazu, orain arte ez genuen hemen tatuaiadun emakumerik ikusi...

– Zer?

– Tatuaia... pinpilinpauxa txiki hori mazela gibelean –begiak beti ere leihotik, Karmenek.

– Badakin, Karmen, garai batean lotsa hartuko niken istorio hau kontatuz –Maitek poza hartu zuen Karmen berari begira zegoela konturatu zenean–. Hik ba al dakin, Karmen, zer den gizon bat egiazki maitatzea? –eta Karmenek ezetz esan zionez, ez zekiela hori zer zen, luze jotzeko asmoz ekin Maitek kontakizunari.

Eta nola bost urte lehenago bere anaiak lagun bat presentatu zion. «Intelektual bat... argazkiak ateratzen zitinan, musika ikasketak ere eginak omen zeuzkanan». Eta nola berari ere –Maite gazteari– erretratu asko eginak zizkion aste gutxitan. Gehien maite izan zuena, ispiluan biok zeuden hura. Baina amodioaren eta bizitzaren aldean, erretratuak erliebe eskasekoak izaki, krudeltasuna faltan. Eta nola ere Maitek ez zuen sekula pentsatu hogei urterekin mutil bat beretzat soilik nahi zukeenik, beste inorenganako keinu edo imintziorik ez permititzera heldu zatekeenik. Eta nola horretara heldu zen denborarekin, eta nola azkenik erretratuak aski ez izaten ere hasi ziren.

«Une gozoak ere izan zitunan, ez pentsa. Hik ba al dakin zer den gizon batekin gogotik ongi pasatzea? Inork ez liken sufritzeagatik ezer iraunaraziko...». Denbora luzez segitu zuen zoramen hark... hilabeteak, baliteke bi urte, agian bost, nork daki. Asteak mantso eta azkar pasatzen ziren. Amak erakutsia zion txikitatik horrela neurtu behar zela bestearenganako amodioa. Asteak, soilik mantso edo soilik azkar pasatzen hasten direnean, heldu gogor edo aldentzen utzi, amodiorik behintzat ez baita tartean. Halaxe esaten zion Maiteri ama zenak. Eta Maitek, denbora zenbatzen hasi zeneko garai hartan, ez zuen laguna aldentzen utzi.

Burges familiako alaba izateko –edo agian horrexegatik– erreparo gutxi eduki ohi zuen Maitek larru kontuan. Seme-alabarik egiteko gogorik, bestalde, inoiz ez zuen sentitu; inoiz ez, egun hartara arte. «Hik ba al dakin zer den umea egin nahi izatea baina ez edonorena, hirea den gizonarena baizik, harena edo ezer ez?». Abenduaren 2a izan zen, beste ezer ez zuen gogoan Maitek egun hartaz, kalendrera orria gordea zuen inon. Orduan deliberatu zuen pilularik ez hartzea

aurrerantzean, bestearekin fitsik kontsultatu gabe.

Hurrengo zortzi hilabeteetan asko eta asko zenbatu zuen Maitek, bizitza osoan zenbatu ez zuena zortzi hilabete eta bost egun luze eta amaiezin haietan egin zuen. Esperoan egotea eta desesperoan jaustearen muga zorrotzean, hamabost aldiz egin zuen ernaltze froga botiketan, hamahiru kilo t'erdi galdu zituen, hogeita bat bider lantokian huts egin zuen aitzakia merkez, eta inoiz baino gehiagotan joan zen mutilarekin zinemara, zehazki hirutan. Zortzi hilabete eta bost egun haiek pasa zirenean, abuztuaren 7an, Maitek aurre egin zion bere mutil jada tenteldu eta gutxituari, berak bazekiela haurdun ez geratzea ez zela bere kausaz, eta ea zer mila deabru. Bestearen aurpegia ikustearekin, ez zuen aurrera jo nahi izan neskak. «Hik ba al dakin zer den hanka sartu dunala konturatzea eta atzera jo ezin izatea?». Gaizki hartu zuen mutikoak Maitek asmoak ez kontatua, xedea denbora luzez isilpean gordetzea. «Hara, neska –esan zion lasaitu ondoren–, ongi aski nekien nik nigandik halakorik ez zegoela lortzerik. Berdin

dit zergatia ez ulertzea... nahi baduzu umea bezala bizitza osorako zenukeen oparia proposatzen dizut, biona –pausa luzexka bat eta serio keinua mutilaren begietan–, neure hazia zugan ernaldua». Horrela sortu zen tatuaia egiteko ideia.

Poema bat egin zion mutil-lagun intelektualak, Maitek belarri aurrealdean tatuatuko zuen tximeleta nanoa loriatuz, «elkarrenganako amodioaren ikurra, betirako sinboloa betiereko elkartze baterako, inongo komentuko atetan abandona ezin litekeen alabatxoa...». Tatuaia egin eta hurrengo egunean utzi zuen mutilak Maite, betiko, tatuaia berri hura bezalaxe, betiko. Poema ere libururen batetik kopiatua zuela esan zion, despedidaz. «Hik ba al dakin zer den umiliatua sentitzea, iraindua, bizitzen segitzeak ez duela piperrik merezi pentsatzea?».

Baina istorioa ez zuen Maitek hor amaitu nahi izan. Eta kontatu zuen nola momentuko egunak zenbatzetik iragandakoak zenbatzera pasatu zen. «Tatuaia estaliko zuen orrazkera baten bila ibili nindunan denbora luzaz, badakin, ez mantso ez azkar pasatzen ez den denboraldi horietako

batean, kartzela honetara sartu ninduten arte». Eta nola kartzelara sarrarazi baino apur bat lehenago ere tatuaiaz harro sentitzen hasi zen, nola harrotasun hori kartzela zikin harengatik ez zen. «Ba dakin zergatik? Pinpilinpauxa hau, betirakoa den odol-izpi hau, egun batez desiratu nuen ume madarikatu haren gaitz erdi delako».

Maitek berriz ere leihoan zehar behatu zuen, patioan gertatzen zenari erreparatu gabe. Pioiak bazkaltzera joanak ziren, eta galeria batzuetako leiho-burdinetan jesarririk zeuden presoek patio desertuari begiratzen zioten, bereziki bertan utzitako pala, piko eta kristalezko botila litrokoei, urrea baino gehiago balio zuten beira abandonatu haiei. Karmenek bazuen beste galdera bat Maiteri aspalditik egin nahi ziona, ea zeren kausaz zegoen kartzelan alegia, baina ez galdetzea hobe zela juzgatu zuen. Grazia hartu zion gainera Maitek zer erantzungo zion imajinatzeari: «Hik ba al dakin zer den maite dunan gizona hil behar izatea?».

Pianistari tira

Pako Aristi

Susa 18 / 1986ko uztailean

Cotton Club ireki zen egunetan elur asko egin zuen Chicagon. Atezainari eskuak hoztu egiten zitzaizkion jendea Pacard gorri eta Cadillac beltzetatik jaisten zen bitartean, baina ingurura husmeatzera etortzen ziren beltz eta eskaleak jotzen berotzen zituen. Dan Milos sartzen hasi zenean bultzada bat sentitu zuen, eta ondoren atezainak muturreko bat emateko keinua egin zion. Dan Milosek eskumuturretik heldu zion, oso gogor, eta ez zuen begirada jaitsi.

– Ni pianista naiz.

– Barkatu –erantzun zion atezainak.

– Eta batzuetan badakit boxeadorea izaten!

– Barkatu, baina musikariek atzetik sartu behar duzue.

Dan Milosek beti nahi izan zuen, King Oliver eta bere hogeita bost laguneko banda entzun zuenetik, jazz talde batean jotzea. Baina toki guztietan berdina esaten zioten, berea ez zela jotzea, berarena laztantzea zela, laztantzea erritmorik gabeko behatz luze eta beltz haiekin, eta tristeegia eta nostalgikoegia zela Delahave haiekin, eta tristeegia eta nostalgikoegia zela Delahave haietatik jaisten zen jende fribolo haren gustuak asetzeko, eta Dan Milosek Rosse gogoratzen zuen, hamalau urte, trentza ezkerraldera eroria eta bihotza beti irekia Dan Milosentzat bazen behintzat, eta etxe txiki hartan pianoa ikasten, eta Rosse arratsalde osoa berari begira, gainontzeko mutilen pikardiei arretarik ez, eta Dan Milos ez ikusiarena egiten, baina zeharka Rosse begiratzen, eta bizitzan lehenengo aldiz maitasunaren antzeko hura sentitzen. Eta nola esplikatu haiei beti Rossentzat jotzen zuela, nahiz eta hamabost urte haietatik Rosse ez zitzaion gehiago inoiz begira gelditu, eta nola esplikatu haiei bizitza guztia bizitzari atzera egiteko manibelaren bila bota zuela eta manibela hori existitzen ez dela jakin zuenerako berandutu

egin zitzaiola, zahartu egin zela Rosse maitatzeko zuen era bakarrera itzuliz behin eta berriro, pianoa jotzen behin eta berriro bakarrik, gau hartan Capone hiltzeko Cotton Clubera sartu zen arte.

Atzeko atean errekistatu egin zuten. Ez zeraman ezer. Jakinaren gainean, pianoaren barruan jarri zioten pistola Caponeren gorrotadoreek. Capone ez zuen ezagutzen. Uzcudun delako boxeadore batekin argazkian ikusita izan ezik, baina jendearen begiradetan antzeman zuen Capone nor zen, exaktuki. Bere burua nor den dakienak era batera begiratzen du, eta ez dakitenek beste modu batera. Caponek zuzen begiratzen zuen, eta besteek zuzen baina oker.

Gau hartan ez zegoen beste musikorik. Film mutu bat bota behar zuten, justu normalki orkestrak jotzen zuen atzeko hormaren kontra. Filmaren argi zirrintak Dan Milosen eskumako beso ondotik pasatzen ziren eta txaketako hautsa aireratzen zuten. Seinalea garbi zegoen. Artistak «pianistari tira» esaten zuenean, Dan Milos jaiki

egingo zen, eta desafine baten aitzakian tapa irekiko zuen, pistola atera eta berari zuzenki begira egongo zen potoloa hilko zuen, Capone hilko zuen, Rosse pianoaren bidez hainbeste urtetan laztandu zuen esku berberekin.

Trankil zegoen, nahiz eta ziudadeko gizonik dirudunena hiltzera zihoan ordu erdi barru. Pelikularen erdi aldera, eszena bizkor batean, artistak kontraseña bota zuen. Begi larriekin «pianistari tira» esan zuen. Dan Milosek barkatu esan zuen, pelikula musikarik gabe utzi zuen, jaiki egin zen eta pianoaren tapa ireki zuen. Eskua sartu eta pistola ez zen beste zerbait aurkitu zuen. Atera zuen. Gurutze beltz bat zen, Cristo azkenizo batekin. Bueltatu egin zen, eta zuzen begiratzen zuen gizona zuzen disparatzen ikusi zuen, kopetan sartu zion lehenengo bala Caponek, eta ezkerreko begian bigarrena. Andreek oihuka alde egin zuten eta proiektorea hankaz gora gelditu zen. Pianoan sartu zuten Dan Milos Caponeren gizonek, eta atzeko atean zain zegoen kamioi batean sartu zuten pianoa. Elurra hasi berria zuen berriro kanpoan, eta kamionero batek esan zion besteari:

– Zenbat pisatzen duen piano honek!

Autobusa

Mikel Hernandez Abaitua

Susa 2 / 1980ko apirilean

Kalera atera, harrizko eskailera saihesteko egindako bidea pasa, zeharkatu burdinazko hesia, hartu bidea aldapan behera, atzean uzten duzula eliza, mirarizko harritegi galanta, zerua desagertuta, jarraitu Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren kale-erloju guztien azpitik, etxerako bidea kronometratuz, etxeak, tabernak, etxeak, kaleak, kolore guztietako kotxeak, era guztietako kale-ahoak, uzten duzula aldapa behera, tunela, gaizki mugitutako munduko haize atomo berdeak eta zerua beltza eta airea hotza, gau honetako euriak bustitako lurrean zapatak zikindu eta gau hori tunelaren azpian argitzen da, paretetan zehar hauteskundeetako kartelek emandako paisaia zikina, gordina, aurrera aurrera, gutxi falta da, eta pausoa arinduz aaaaa! ibaia itsasoa,

espazio irekia itoaldiaren bukaeran auzoa bukatzen den lekua. Ziutateko parte grisetik aterea ziutateko alde berri hau garbiagoa, koloretsuagoa iruditzen zaio, argazki zuri-beltz batetik koloretsu batera pasatzea bezala. Autoek margo argiagoak dituzte eta milimetrozko molekuletan argien distirak jasotzen dituzte. Argi artifizialen azpitik eta Xabier Larretxuak badaki orain bide luzea falta zaiola etxeraino zuhaitz hezeen artean, airea gorputzetik joango zitzaiolako inpresio hori. Ez erdi gaixorik egoten denean bezala, orduan dena beheraka sentitzen duela esan dezake, haragia, hezurrak, azala lurrera eroriko zaizkiola. Baina orain zainetan zehar korrikalari sentitzen du odola. Bide luzea du edo hala iruditzen zaio, autobus bat hartu behar duela esaten du bere baitan, baina horretarako desbideratu egin behar da eta Urbieta kalerantz abiatu, bestela aurrerago ez du jadanik merezi hartzea. Bai, hartuko zuen, horretarako hurrengo izkina pasatzen du eta handik begiztatzen du urdin, zuri, urdin, zuri, urdin, zuri... pintatutako bus-makila. Han dago jendea itxoiten, panazko praka berde ilunak eta txaketa amerikanoa dituen neska ile-

horia, apainduta, oso ondo jarrita bera, hain polita hain dotore pintatua; Woody Allenen antza duen intelektual aurpegidun mutil bat bere karpeta besapean; altzakuelloan bukatzen den janzki urri egokia duen apaizak bere hontz aurpegitik begiratzen dio Xabier Larretxuari. Denbora asko daramazuela. Bai? Amarako azken autobusa pasatu dela. Bai? Baina espeziala itxoiten ari zaretela? Asko tardatuko duela oraindik. Ez? Ikusten zela jadanik, zer poliki zetorren elefante baten kulunkadaz, urdina; AMARA-ANOETA jartzen du aurrean. Poliki dator kalean behera mastodonte motel bat bezala gauaren airetan, eta bere gorputz osoaren metalak inguruko argi guztietan islatzen dira. Xabier Larretxua itxoiten ezkerretara begira, Xabier Larretxua gogoratzen bere amodio adoleszenteez, hain urruti orain, norbaitek esan zion gero (ez zen gogoratzen?) nobela bat bezalakoa izan zela garai hura, un vieux roman. Nola izan zitekeen hain tontoa? Nobela bat! Kursi bat, hori zen, kursi bat. Nobela bat, hango burges-ttipi kutsuz bernizatutako zelai txikia, bere ping-pong mahaidun aterpea, frontoi txiki hura, tenis-pista baten hondakinak,

dena gaizki zainduta, garai oparo baten oinordetza zen lur zati apaindu hura bere dekadentzia usain miragarriaz. Hura zen bere lehenengo amodio-abenturen antzezlekua. Nobela bat. Ez, ez, antzerki bat non dena misteriozko naturaltasun batekin bezala igartzen baitzen zeruaren azpian. Apenas gogora zitzakeen esku ferekatze baten goiztasuna eta lehenengo muxua, haragia hain biguntxoa zela, ai ene, ezpainetako haragi hura, hortzen artean paseatutakoa aulkidun kolunpio handi hartan kulunkatzen ziren bitartean. Erromantikoegia, baina hemen zegoen autobusa. Igotzeko laugarrena dela ohartzen da, lau, lau. Igotzean soinu korrikalari bat ateratzen dio eskuan daraman diruari. Klik entzun du bere dirua txoferraren kaxan erortzean, eta autobusaren aurretik pasatzen ari den gaizki jantzitako atso bati begiratzen dio. Segundo bat. Aulki baten bila gaueko argiak barruratzen dituenean. Egurrezko aulki batean eseri da Xabier Larretxua. Atzeko partean begirada despistatuaz alde batera eta bestera so egiten du eskuak artega mugituz ezpainak aldatu gabe, eta bekainak goraka, kristalaren kontra akomodatzen da. Auto-

bus hark ez ote duen misteriozko usain arraro bat. Ez dabil gainera beste autobusak bezala. Beltzagoa iruditzen zaiola alde batera utzita, begira zer abiadura motelean doan. Kanpoko kaleak oso bakarrik daude eta han urrutian, koadratu beltz handi bat suma dezake. Lauki beltz handia, mundu osoa tragatzen, gero eta hurbilago. Erotasun barre ziniko bat egiten du, bere aurrean dagoen neskari sua eskatzen dio, eta neskak, ematera doanean, ikusten du zigarrorik ez daukala ahoan, zeinagatik puru habano bat ematen baitio koadratu beltzera sartzen diren momentuan. Serio daude besteak Xabier Larretxua barre histerikoetan murgiltzen denean, habano handi bat duela ezpainetan.

Beranduegi

Jose Luis Orokieta

Susa 25 / 1990eko martxoan

Sarari

Isiltasunaren erdian Elena eta biok eskutik helduta. Zerua estalirik, haize hotzak zeharkatzen du hilerria, aurpegian nabaritzen den hotza.

Kanposantuaren isiltasunaz inguraturik sentsazio arraroa sentitzen da bizitza eta heriotzaren arteko muga hurbilago sumatzean.

Herioren erresumako atarian, gure aurrean porlan zatitzar bat baino ez, grisa, bustita orain-dik. Elenak ukitu egin du eta negarrari ezin eutsiz, horrenbeste maite ditudan masailak busti dira.

Elena beltzez jantzita eta inoiz baino beltzago adatsak, aurpegi zurbilarekin egiten du kon-

trastea. Begi berdeak bustirik, karminez gorritutako ezpainak dardaraka mugitu dira ahoa zabaldu nahian, eta bi ezpainen artean listuzko hari mehea.

– Denon artean hil genuen.

– Ez, koldarkeriak egin zuen.

Gerritik oratu nau, karmin zaporea eta lurrin usaina nire barruan nahastu dira. Zapore geza nabaritu dut ezpainak aldentzean. Bi ibai malkok zeharkatzen dute aurpegia ezpainetan tantak osatuz.

Hilarriaren gainean utzi ditugu loreak, hilarrian lauburua, izen bat eta bi data, gure lagunaren bizitza laburtzen dutenak.

Fermin Betolaza
1958.eko uztailak 7 - 1986.eko urtarrilak 15

Gorritutako ezpainak nireetan pausatu dira; burua nire lepoan jarriz negarrari ekin dio.

Aldapa jaisten hasi gara. Atzean lagun bat, oroimen bat, gure bizitzaren zati bat, zirimiriz bustiriko hilarri bat, eta bere inguruan sei ezeza-

gun, munduko sei zati, Historiaren sei egile, bakardaderako sei bidaide hilerri txiki honetan.

Elena, oraindik negar zotinka, kotxearen atzealdean sartu da. Bere alboan eseri naiz. Rimelez belztutako begiak, tristeziak zurbilduriko aurpegia, zuri-beltzez egindako argazki zoragarri biziduna.

Hitzik egin gabe bere hanka ferekatzen hasi naiz, media beltzaren ukia galdu, izterraren berotasuna, gonak ezkutatzen duen berotasuna dastatuz musukatu dut. Beltzez jantzitako figurak hankak zabaldu ditu.

Elenaren arnasketa gero eta arinagoa, arnasestu bihurtu arte. Eskua bustirik daukadala mihiaz hasi naiz sama zeharkatzen, titietaraino heldu arte. Titiak agerian geratu dira Elenak botoiak askatu dituenean. Mugimenduak gero eta bortitzagoak, gero eta goxoagoak. Elkar asetu dugula, isiltasunak berriro inguratu gaitu. Elenaren burua nire hankarte gainean, isilik, infinituari begira, leihatilatik ikus daitekeen hilerrian bukatzen den infinitua.

Infinituaren beste aldean Fermin, bere alaitasun faltsuarekin, bere frustrazio eta gezurrarekin. Nork pentsatu Ferminek egingo zuela?

Institutu garaitik ezagutzen nuen Fermin, izan dudan lagunik minena, ene nerabezaroko konfesorea. Arazo guztietarako zeukan aholkua.

Koadrilako mutil zaharra, eta ni Elena ezagutu arte bere kidea, eta orain bere sekretuaren jabea. Oraindik, kotxearen barruan eta Elenaren azala sentituz, Ferminen ahotsa entzun dezaket telefonoaren beste aldean. Indar gabeko ahotsa, koldarkeriaren ahotsa, heriotzaren hotsa.

Bera soldadu zegoela ezagutu nuen Elena, soldadutza txarto pasatu bazuen ere, bueltatutakoan txarrago. Bera zen koadrilan geratzen zen mutil zahar bakarra, eta zeuden bikoteak urrun sumatzen zituen. Bakarrik geratu zen lagunez osaturiko itsasoan; betiko lagunak, Ferminentzako ezezagunak.

– Neska bilatu beharko huke, Fermin –esaten zion amak.

Neska franko zuen Ferminek bere inguruan, mutildunak ziren neskak; neskek maite zuten Fermin, baina ez berak nahiko zukeen moduan.

– Fermintxo, ea noiz ikusten haugun neska batekin.

– Ez naute maite –izaten zen Ferminen erantzuna.

– Nahi ez dualako. Primeran bizi haiz-eta liatu gabe.

Barreak eta alaitasuna, irribarreak eta poza, baina guzti honen atzean benetako Fermin, sexua behar zuen Fermin, amodiorik gabeko Fermin. Frustrazioaren erdian, alaitasunezko basamortuan isolaturik zegoen.

Bere aitorpena entzun baino lehen ezin ezagutu benetako Fermin, guztioi sartu zigun ziria, alaitasun faltsu hori, tristezia ezkutatzen zuen alaitasuna.

Euria ari du eta haizearen hotsa tantek kotxearen kontra lehertzean egiten dutenarekin nahasten da paisaia horia zeharo melankolikoa bilakatuz.

Fermin oroitzean beldurrak eragindako hotzak zeharkatzen nau, heriotzari beldurra, bizitzari beldurra.

Elena altxatu da eta musukatu egin nau.

Bide luzearen beste puntan, urrunean, orain-dik urrunegi, puntu beltz bat lurrezko bidean. Puntu beltzak euritako gorria zabaldu du; odol tanta paisaia makabroan.

Nor izango ote da datorkigun bisitaria?

– Ezin dut ulertu.

Elenak ezin du ulertu, eta ez dakit Ferminen benetako istorioa kontatu behar diodan.

Fermin, bere bakardadean, maiz ateratzen zen bakarrik. Hasieran arraroa egiten zitzaigun, baina ohitu ginen.

– Jaialdira bakarrik joan haizela? Jota hago, motel. Zergatik ez didak deitu memelo horrek?

Behin zinemara joan zen, bakarrik. Aretoa ia hutsik, zuri-beltzezko pelikula, jatorrizko ber-tsioa, benetako zinemazaleentzako filma.

Filma hasia zela, berandu heldu zen tipo bat ondoan jarri zitzaion, berrogeita hamabost urte-koa edo. Hau dena kontatzen zidala, bizia ba-zihoakiola igar nezakeen.

– Ulertu behar didak, Karlos, bakarrik nengo-an, orain bezain bakarrik, lehen bizitzaren au-rrean bakarrik, eta orain heriotzaren aurrean ba-karrik.

Eta nik ezin lagundu.

– Non hago? Esadak, ostias!

– Ixo! Eta aditu.

Eta kontatzen jarraitu zuen. Pelikularen erdian berandu heldua Fermini hanka laztantzen hasi zitzaion. Hasieran atzera egin zuen Ferminek, baina besteak berean jarraitu.

Ez dakit zer pasatu zen Ferminen burutik, agian ordura arte aurkitu ez zuen maitasuna topatuko zuela, eta amore eman zuen.

Tipoak hanka ferekatzen jarraitu zuen, eta hankarteraino eraman zuen eskua, eta han, zineman bertan, berea ez zen esku batek orgasmoa eragin zion.

Filmaren bukaeran argiak piztu ziren. 14. ilaran bi gizon elkarri begira.

– «Etorri nirekin eta hitz egingo dugu» esan zidaan, eta joan ninduan. eta ez nauk damutzen!

Taberna batera joan ziren. Martin zuen izena ezezagunak, nik oraindik ezagutzen ez dudan ezezagunak.

Antza, tabernatik Martinen etxera joan ziren eta han, Martinen gidapean Ferminek aspaldida-

nik bilatzen zuena topatu zuen, baina ez berak amestu zuen moduan.

– Eta gustatu egin zitzaidaan, eta beraz maitemindu ere, ni, neskarik gabeko neskazale amorratu marikoia!... eta zer?

Maitemindu zen, eta inori ezer esan gabe, berririk eman gabe aurrera egin zuen maitasunaren bidetik.

– Eta gu ez gintuan konturatu.

– Zer diok, Karlos?

Ezer ez, ez ginela konturatu. Elenak leihatila jaitsi eta eskua atera du euripean utziz.

Urruneko figura hurbilago, baina oraindik puntu bat.

Sei hilabetez egon zen Martinekin, beti ezkutuan, lapurtutako amodioa, lotsazko amodioa.

– Aldez aurretik zita egin gabe pisura joan ninduan, Martin behar nuelako, baina ez zegoan. Orduan enteratu ninduan han ez zela inor bizi. Martinek beste etxe bat zeukaan.

– Zergatik ez zidan esan? Zergatik, Karlos?

– Lasai hadi, motel. Eta, arren, esadak non hagoen.

Martinen benetako helbidea lortu zuen, ez dakit nola, ez eta zenbat eman zuen topatu arte, ez zidan esan.

Telefonoz deitu zion. Gaua, eta Fermin bestearen beharrez.

– Bai? –emakume baten ahotsa.

– Ba al dago Martin?

– Ez, gaur berandu etorriko da. Nor zara?

– Eta zu?

– Bere emaztea. Baina nor zara?, e!, aizu!

Eskegi egin zuen.

– Gau osoa negarretan pasatu nian. Hik egingo huke, Karlos?

Ez dakit, ezin nion ezer erantzun.

Elenak aurpegitik pasatzen dit bustitako eskua.

– Begira, zeruak ere negar egiten du.

Bai negar egiten du, Ferminek egin zuen moduan. Amodioaren minez jota bere etxearen ondoko putetxera joan zen. Berak horrenbeste gorrotatzen zuena, puta batengan babestu.

– Ez zakiat zergatik, baina joan ninduan, eta bistaz ezagutzen nuen batekin. Gaztea, ederra, eta 5.000 pezetaren truke nahiko nukeena.

Gelara igo ziren, neska biluztu zen, gero Fermin erantzi. Ferminen gorputz osoa musukatu zuen, eta zakilera heldu zenean milikatzen hasi zen. Ondoan zegoen ohera eraman zuen.

– Amaitu ondoren lotsa sentitu nian, eta barrutik hutsik, orain sentitzen naizen moduan. Baina oraingoan konpondu diat.

Ohetik altxatu, jantzi eta ordaindu egin zion.

– Gutxi barru joango nauk, Karlos, ia ezin diat ezer gehiago esan. Mesedez, ez ahaztu.

Handik pare bat egunera topatu genuen Fermin, hiriaren kanpoaldeko ostatu batean, baineran sarturik, telefonoaren ondoan. Amodioaren aurrean borroka egiteko izan ez zuen ausardia izan zuen zainak mozteko.

Urruneko figura kotxearen paretik pasatu da. Gizona, beltzez jantzita eta euritako gorria.

– Begira, Karlos, Ferminen hilobiaren aurrean gelditu duk. Nor ote?

– Beranduegi damututako koldarra.

Yesu gure Yainkoaren eriotza

Xabier Montoia

Susa 8 / 1983ko ekainean

TESTU HONI BURUZKO HAINBAT BERRI

Bernardo Atxaga Obaba deritzan herrixkaraino hurbildu zenean, aurkikuntza txit harrigarri batzuk egin omen zituen hango erretore izandako Camilo Lizardiren paperen artean. Atxagak argitara emandako gutun famatuaz gain ezer gutxi dakigu material garrantzitsu horretaz. Entzun dugu gutunak eta era guztietako eskutitz franko daudela, alegia moral batzuk ere bai, eta herri hartako zenbait gertakari xelebre, azkenik. Guri gehien interesatzen zaiguna beste zerbait da, ordea: Itun Berria. Bernardori, Camilo Lizardiren izkribu erdi ezabatu erdi ustelduen artean, azaldu zitzaion ebanjelioen bertsioa. Bernardok, jakina, ez zuen argitaratu. Geu ere zalantzatan izan gara, baina gure literaturaren onerako izango delako ustean, aurrera egitea erabaki dugu. Obabako altxor kulturalaren zati nagusienetako bat eskaintzen dizuegu, beraz, *Susa* honetan. Testu osoa laster gure liburu-dendetan egongo delakoan, hona hemen aukeratu dugun zatitxoa.

Donostian, 1983ko urtarrilean

Irtetean, Simon zeritzan Kirenai'ko gizon bat yarrugi ta Aren gurutza eramateko akuratu zuten. Ta Golgota edo Garezurtegi deritzan tokira eldutakoan, ardo-beazuna edaten eman zioten. Baña murtxatu ala, ez zun edan nai izan.

Yesu gurutzatu ondoan, berriz, Aren yazkiak, zotz eginik, elkarri banatu zizkioten. Ta an zeuden eseririk Bera zaintzen.

Aren ogen-agiria ere burua baño gorago idatzita ezarri zioten: «AU DA YESU NAZARETARRA, YUDUEN BAKALDUNA».

Ordun Arekin lapur bi gurutzatu zituten; bata, eskui aldean, ta bestea ezkerrekoan. Igarotzen ziranek, berriz, burbuñoka biraokatu ta esaten zioten: «Yauretxea porrokatu ta iru egun buruan berreraikitzen dukan ori; ire burua yaregik. Yainkoaren seme bâiz. Gurutzetik yetxi adi». Berebat apaizpuru, idazlari ta zarrek zerasaten: «Besteak yaregin dira; bere burua ezin Israel'en yaun da; gurutzetik orain yetxi bedi, ta sinetsiko diogu. Yainkoa bere alde uste zun: Yainkoak yaregin

beza orain, maite badu; yainkoaren seme naiz, zion-eta».

Arekin gurutzaturik zeuden lapurrek ere orrela irain zegioten. Emakume asko ere an zeuden urruntxetik begira, Yesu'ren ondoren mirabetzat Galilai'tik etorriak. Ayen artean Mari Malen aurkitzen zan. Ta emakume ura Yesu'ren miña ikusita, beregana urbildu zan; bildurrez asieran baño Yesu'ren aurpegia ikusi ta gero lasai. Ura zala ta atzean zeuden beste emakumeak, Yakob'en ta Yose'ren ama Mari, ta Zebedai'ren semên ama, urbildu ziran.

Gure Yaunaren oñazea izugarria zan. Buruan zeukan arantzazko buruntzatik bêra, odol ugari zerion. Gorputz osoa izerditan blai zegon ta aoa leor-leorra.

Seietatik bederatziak arte lur osoa ilunetan gelditu zan. Ta bederatziak aldean, Yesu'k deiadar aundiz ots egin zun, esanaz: «Eli, Eli, lama sabachthani?» edo «Ene Yainkoa, ene Yainkoa zergatik zapuztu nauzu?». Ori entzunda ta bere sufrimendua ezin eramanean bere oñen azpian yarri ziran ta Yesu'ri galdetu zioten: «Yauna zer egin dezakegu?» Yesu'k erantzun ez zunez ema-

kumêk zurubi bat artu zuten ta Mari Malen igo egin zan. Goian, esku batez zurubia elduta, besteaz Yesu'ren zauriak asi zan zaintzen. Leunki ferekatu zun Yesu'ren gorputz mindua ta goxoki ere asi zan bere bularra musukatzen, bere ezpañak goitik bêra ziyoazelarik. Yesu'ren abotsa entzutea zeritzon: «Bêrago pixka bat bêrago» esango balu bezala. Bêruntza joan zan beraz, bere anatomi dibinaren zatirik ezkutuena estaltzen zan zapi txuri bateraño. Zapi orren azpian eskua sartu bezañ laister zerbait aundituz ziyoala nabaritu âl zun. Zapi txuria askatu zunean gure Yauna Yesukristoren Yainkotasunaren adierazlerik nabarmenena agertu zan arro ta kementsu bere begien aurrean. Salbazioaren zutabe ura bere ezpañen artean sartzerakoan gure Yauna'ren aurpegian irrifar bat atzeman zun, bera errukiko balu bezala. Ta ola amoroski Yesu'ren kontsolamenduari ekin zion, aurreruntz ta atzeruntz, gora ta bêra lasai baño ziurki bere ezpañetatik esne txuri-txuria isurtzen asi arte. Ordun, Yesu'k esan zun: «Nereak egin du». Ta burua makurturik ots aundi bat eginik, azken atsa atera zun. Ta yauretxeko estalkia goitik bêra er-

dibitu zan. Aurrez aurre zegon euntariak, berriz, orrela ots eginik il zala ikusita, esan zun: «Yainkoaren seme zan ziñez gizon au».

Piko o mordisko

Pepe Zulaika

Susa 14-15 / 1985eko uztailean

Hots monotono hura belarrira sartu zitzaidanean, dentistak enpasteren bat egiten zidala pentsatu nuen esnatu baino lehenago, edo akaso, esna nengoen, beno, erdi lotan bai behintzat, baina ez, oraindik dentistaren txanda ez zitzaidala tokatzen konturatu nintzen eta zarataren jatorriaz ere: bosgarren pisuko andrea zen aspiragailua pasatzen barruko patioa asaldatzen, ze aspiragailuak ere lotan egon beharko luke, igandeko goizeko hamarrak arte behinik behin, ez al dute eskubiderik ba? nioen nire baitarako ilunean nentzala begiak igurzten makarrak kentzen konturatzeke nire ohaideak lotan irauten zuela, baina nola? ni erne eta hau esnatzeke, ezin da ezin, amorru bizian jartzen naiz halakoetan eta horregatik esnagailuak jo zue-

nean ez nuen eten, izorra zedin, holan dok hala? baina besteak ohean pare bat buelta eman eta seko lo hartu zuenean, despertadorea almohadapean gordetzea hoberena zela onetsi nuen eta kaguendios pare batzuekin lortu nuen altxatzea komunera joateko eta logelako atea atzean laga bezain laster aurkitu nituen aulki, mahai eta altzairu guztiekin estropezuak egin nituen eta kirrinkei ixooo niotsen behatz bat ezpainetan nuelarik, hala nola anbulatorioko ume gelako koadroko enfermerak zioskunez gure haurtzaroan, hura zen garaia, bai horixe! ba halaxe sartu nintzen komunean egunerokoa betetzeko, edo hobeto esanda, lagatzeko, hain suerte txarrarekin ze funtzino erdian konturatu nintzen paper gabe nengoela eta modu hartantxe, arrapataka, abiatu nintzen sukaldera, armairua ireki, paper roiloa hartu eskuetan eta berriro itzuli nintzen bukatzeko bukatu beharra neukana, ez aurretik boligrafoa hartu gabe, ze inspiratuta nengoen, eta paper arrosa batean apuntatu nituen bertso zikin hauek:

Gizontxo irakurle amorratua naizenez
egunero komunera joaten naiz
irakurtzera.

Metro koadratu baten barruan
bizi izan dut:
Stevensonen pirata eta irla misteriotsuak
Kafkaren gaztelu eta burokrata beldurgarriak
Londonen miseria eta garraztasunak
Omar Kheyyamen olerti eta maxima alkoholikoak
eta sudaka bat edo baten berotasun tropikalak.

Alferrik galduta
zeren eta nik
liburu baten
orri guztiak
behar ditut
ipurdia garbitzeko.

eta hau eginda gero kristoren lasaitasuna sentitu nuen uzkian, ze paper arrosa paper satinatua baino leunagoa da, noski, ba halako mozolokerietan pentsatzen abiatu nintzen sukaldera, argia piztu, hozkailua ireki, bi arrautza hartu, labea ireki, zartagina atera, armairua ireki, olioa erori eta jaso, berriz hozkailua ireki, ahaztutako urdaia hartu eta gosaltzeko prestatu nintzen,

zeren eta igandeetan lau ogi erre gantzaz bustirik eta arrautza pare bat urdaiarekin izaten da nire gogoko hamarretakoa, hori bai, gatzik gabe, potolotzen baitu eta ez da komenigarria gehiegi loditzea, diote sendagileek eta neskatilek, eta nik jaramon eginez «desayuno inglés» egiten dut, europar erara, ba janaria prestatuta daukadanean, ezin naizenez bizi irakurri gabe, mania bat baita, pijama gainean janzten dut bata eta banoa egunkari bila, zeren eta suerte handia dut lehenengo pisukoa *Liberación*-en harpideduna izatearekin, ba horrela ataritik irten gabe, buzoitik jasotzen dut prestamo bezala eta berriro igotzen dut, baina ez pentsa gaizki, ze gero berriz itzultzen diot, nahiz eta txarrena izaten den egunkarian pare bat koipe orbain agertzea, baina niri bost axola, joder, hala eta guztiz ze moskeoa edukiko duen tipoak, baina denok daukagu kulturaren eskubidea, ez al da? beno, ba ondo asetu naizenean buelta ohera, baina ez lotara, almohadapeko esnagailua berriz ipintzeko baizik, nire ohaidearentzat eta ohizko laztana emanda gero kalera kirol pixka bat egitera, beraz, paseatzera, ze paseatzen joaten naiz al-

dameneko parkeraino, han tximino begikoi batzuk daudelako eta ohituta nago kakahueteak eurentzat, artaleak antzarentzat eta arto malutak usoentzat erostera, baina gaur goizean parkera nindoala gauza kurioso bat pasatu zait, ez nuela espero aitortu behar dut aurren-aurrenetik, zeren halako gertaerak bakarrik paperetan gertatzen baitira eta justu gaur niri tokatu, beti egiten dudan bide berdinean izan da, hauxe da: segun parkera zoazen aldapa bukaeran zirrikitu bat dago bi etxe tartean, bidezidor gisan erabiltzen dena parkeraino heltzeko, zirrikitu estua, pareja bat doi-doi pasatzeko eta txipiroien tinta bezain beltza, beldurgarria gauetan, baina inork espero zezakeen eguerdian handik pasatzerakoan bi tipo haiekin topo egitea, hogei urtekoak, zer diot! hamazazpikoak edo hamabostekoak, beno, kakaume batzuk, esaten didatela:

– Benga, dirua.

baina aldean diru gutxi neramala konturatzerakoan, arakatu ninduten eta bat ere ez aurkitzerakoan aurpegiak itxuraldatu zitzaizkien amorruz eta:

– Piko o mordisko.

orduan ikusi nuen batek labana luze bat zeramala eskuinean, baina luze-luzea, harakinek erabiltzen duten horietakoa eta nola nire sabel borobila urratua, odoldua eta hesteduna antzeman nuen, ia zorabiatuz, esatearren:

– Mordisko.

aukeratu nuen, hobea zelakoan, ostera, nire harridura galanta izan zen besteak patrikatik alikate iltze ateratzaile bat atera zuenean eta eskutik oratuz besoari hurbildu zitzaionean koska egiteko asmoz, gehiegi izan zen:

– Ez txikito.

esan nion eskumuturretik oratuz, alikateduna niregana erakarri nuen eta hori espero ez zuela garbi ikusi nuen jarri zuen aurpegiagatik, ba lepazaina estutu nion goritan ipintzen zelarik eta ezkutu gisan neukala kendu nion alikatea labanadunari jaurtikiz, hain suerte txarrarekin, berarentzat, jakina, ze ezkerreko begian jo nuen eta kinka hura aprobetxatu nahian bultzatu nuen nire «ezkutua» bestearekin talka egiteko eta biak lurrean zeutzala labana hartu nuen hain trebeki ze kristoren ebakia egin zidan esku ahurrean, baina behintzat antxintxiketan alde egin

zuten, alikate eta labana errekuerdoz lagatzen eta halaxe bueltatu nintzen etxera umore beltzez eta harrezkero ez naiz gogoratu ez tximinoez ez antzarez ezta usoez, ze hurrengoan Urlia joan dakien elikatzera.

Alegiak

Edorta Jimenez

Susa 21 / 1987ko uztailean

MASKARAK

Maskara egilearen izena erresumaren luze zabalean hedatu zen. Bera ei zen inoiz inon izandako artistarik trebeena bisaiak ezkutaraztearen artegintza hartan.

Hiriko aberats, buruzagi, gerlari-buru, zeken, doilor, pederasta, proxeneta, lapur zuri, ohorezko hiltzaile eta engainatzaile orok, batzarrean bilduta, maskaragilea euren zerbitzupean hartzea erabaki zuten, zeregin horren pagutzat diru, jauregi, emakume eta gainerako ondasun guztiak eskainiz, premiazko baitzuten, antza, barruan okerkeriak eta gaiztakeriak eragindako damuzko mamu izugarriak ager ez zekizkien bisaietako ispiluetan islatuta.

Halaxe egin ei zuten. Etorri ei zen, bai, etorri ere, maskaragile miragarria eta baita hiriko kale, merkatu, plaza, azoka, kartzela, eskola, jauregi, putetxe eta gainerako tokietan ibili ere, menekotzat hartu zutenen aurpegiak ezkutarazteko zeintzuk maskara ote ziren egokienak asmatzearren. Lan horretan egun luzeetan jardun ondoren, batzarrera deitu ei zituen ordurako zainetan odola ere maskara minak jota ziren buruak.

Maskaragilea halaxe mintzatu ei zitzaien:

Ikustea izan dut, zeuok eta zeuon menekoen artean emandako egunetan zehar, zein den zuen barrua, eta baita zuen aurpegiak ere. Sinets iezadazue, ez duzue nire zereginen beharrik, zeuon bikoizkeria baita zuen eginen maskararik hoberena. Ez dut egundo lortu, ezta lortuko ere, zuen aurpegiak eurak bezain maskara perfekturik egiterik. Aurpegia bera duzue zuok denok maskara.

Berbok esan eta alde egin ei zuen maskaragileak, eta ez zuen beste inoiz beste maskararik egin.

ZENTSURA

Senar-emazteek seme bakarra izan zuten. Aita langile arrunta eta ama etxekoandrea izan arren, semeari literatur zaletasuna sartu zitzaion, txikitandik, barne muinetako alde sakonenean sustraitu arte. Han ibiltzen zen paper zuriak izkribuz zikintzen, gauari orduak lapurtuz.

Aldi berean gertatu zitzaien aitari lana galtzea eta semeari lehen liburua zentsuratzaileari zuzentzea. Aitak kaleak gora eta behera ibili zituen, aterik ate, lanen baten bila. Semeak, aldiz, zentsuratzailearen berrien zain ematen zituen goizak, arratsak eta gauak ere, loak hartu ezinik.

Bizitza gogorra dela eta, etika auzietan denbora alferrik emateko konbentzituta beharraren poderioz aita, borrero lana hartu zuen gizonak. Semeak zentsuratzailearen erantzuna jaso zuen egun berean gertatu ei zen hori ere.

Zelan liburu hartan izkribatutako gauzak edozein kristauren begiak zauritzeko gai ziren, zelan erabaki zuen liburu horrek kaleko argia ez ezagutzea, zelan jakinarazi zien agintariei liburuaren irakurketak kutsatutako guztiak zibilizaziora-

ko galdutzat jo behar zirela, hori guzti hori kontatzen zion ezetzaren arrazoitzat zentsuratzaileak semeari zuzendutako gutunean.

Agintariek liburuaren berri izan-eta berehala erabaki zuten, zentsuratzaileak esandakoari jarraiki, zentsuratzailea bera hiltzea, bera baitzen, izkribatzaileaz gain, begiak liburu hark profanatutako bakarra erresuma osoan. Halaxe agindu zioten aitari eta halaxe izan zen betea agindutako lana.

Zentsuratzailea izanik aitak hildako lehen gizakia, etsipenak jota heldu zen etxera hurrengo eguerdian. Mahaiaren aurrean jesarrita aurkitzen ditu emaztea eta semea; jaten hasteko prest. Semeak eskuetan egunkaria duelarik, ijika hasten da halako batean, pozez gainezka barrua.

– Azkenean ere akabatu egin dute piztia zentsuratzaile madarikatu hori. Bart baten batek tiro bakarraz erdibitu ei zion bihotza.

– Berdin dio –erantzun dio aitak–, zentsuratzailea agintzen izan dutenek bizirik dirauten bitartean ez da ezer aldatu.

– Baina madarikatu hori lurpean datza behintzat. Baten batek aurre egiten dio zuzengabekeriari gure herri honetan.

Aita isildu egin zen, arazoa ulertzeko semea gazteegia zelakoan baitzegoen; edo, beharbada, auskalo, ez zuelako semeak beraren lana zertan zen jakin zezan gura.

LIBURUZAINA

Urteak igaro ahala, gaztetan liburuzain soila legez lanean hasitako hura, bibliotekako liburu, aldizkari, txosten, paper-bilduma eta bertan gordetako gainerako material guztiei buruzko xehetasun txikiena ere ikasten joan zen, denboraren poderioz eta naturak erregalatu oroimen pribilegiatuari esker. Horrelaxe, bada, liburuzainen buru izatera heldu zelarik, mahaia eta aulkia eman zizkioten, liburuak ateratzeko lana beraren menpekoen eskuetan utzita.

Mahai hartatik mugitu gabe erantzuten zien liburu biltzaileen galderei, artxibategi jaun txit jakintsuak berak ere nekez erabiliko zuen trebe-

tasuna erakutsiz. Urteek, alabaina, zentzu bikoitzean eragiten zieten liburuzainaren menekoei, batetik abantailak sorraraziz, baina, era berean eta dialektika ankerrenaren morroi denbora bera, haren aurkako mamuak ere ernaldu, erditu eta haziz ere.

Isiltasuna ei da biblioteketako altxorretan bitxirik preziatuena, metalkirik gardenena, perlarik distiragarriena, berau barik ez baitago bestelako ondasunen bila abiatzerik. Hau guzti hau ederto zekien gure liburuzainak; adinak, hala ere, ez du ezer barkatzen, ez du inoren errukirik, ez daki bihotzaren taupaden berririk. Gortuz joan zen, bai, liburuzaina, garunetako artxibategian gordetakoak bere balioa aberastu ahala.

Aulkitik mugitu gabe erakusten zien biltzaileei zein artxibategitan begiratu, zein kode erabili harako haren bilketan, nongo orrialdetan kontsultatu beste datu harrigarri hura. Dena dela, gero eta gorrago, gero eta ozenkiago hitz egiten hasi zen, hasieran artxibategi gelako beste edozein baino ahots zoliagoaz, baina apurka-apurka eta gorraren gorraz irakurketa gela baztertuena ere eztarri garramatu hark –tabako-

ari lar ekitearen ondorioa– oihartzun amultsu bezain grabez betez. Bilo urdinari zor ei zaion begiruneagatik edo, egoera jasanezina bilakatu arte ez zuen inork ere protestarik egin. Inoiz, hala ere, pazientziak ere gainezka egin behar bisaia serioegi haiek estalitako barne ozeanoan. Protesten uholdeak Zuzendari Nagusiaren bulegoko ateak busti zituen.

Batzar Orokorra bilduta eta Zuzentzaren balantzan aldekoak eta kontrakoak elkarri kontrajarri ondoren, liburuzaina jubilatzea erabaki zuten, beronen zereginetan emandako urteak ohorezko dominaz estali ondoren, esker onaren seinaletzat.

DEDALOA

«Atzerri, otserri» dioen arren esaera zaharrak, berarentzat ez zen dedaloa baino urruneko hiri hartako kaleen labirintoa. Noraezean, gauak eta goizaldeak, gora eta behera, ibili eta ibili eman izaten zituen, zorabio hartan gidatuko zuen hariri gabe, plano mentalak marraztu ahal izateko

garunarririk gabe. Harik eta leku hura aurkitu zuen arte. Adurrak nahi izan zuen taberna hartan beraren herriaren argazkia egotea, horman eskegita, menpean denetariko botilek osatutako erreskada nabarra zuela.

Handik aurrera taberna berera abiatu ohi zen berriro, gauero, itsaso ezezagunean dena ardazten baitzen kalearte hartan, dedaloaren erdian jaioterriko usaina zerion argazkidun zulo hartan. Halaxe hasi zen edaten, argazkipeko botila guztietatik frogatzearren, argazkiari begiratzen zion bakoitzean botila berriren batekin tematu izaten baitzen.

Urteak joan, urteak etorri, halakoren batean jaioterrira, argazkian ikusi eta ikusi egin izandako sorterrira, itzuli ei zen, begiak herriminak lausotuta eta gibelaldea alkoholak gizenduta.

Heldu bezain laster herriko kaleetan ibili zen, argazkikoa begien aurrekoaren aldean zertan ote zen bestelakoa jakitearren. Berdintsuak iritzi zizkien biei. Aldaketa nagusi eta hala ere txikiez jabetuta behin-behineko begirada haren bidez, zainetan garagardoaren igurtzi apartsuaren eza nabaritu zuen, deika ari den maitemina baino

arretatsuagoa, hunkidurak areagotu egiten zuen egarriari nahastuta. Gogoan zeukan gaztetako tabernara abiatu zen. Taberna hura, non bere bizialdiko lehen zurrutadak jo baitzituen, pentsatu zuen, solemneki.

Garagardoa eskatu zuenean tabernariaren begirada mutua, harriduraz, eta atzamar nagusia hormarantz erakusten. Horman eskegita, txartela, «osasunaren alde, debekatuta alkoholdun edozein edari. Eskerrak ez edateagatik leku honetan». Lur jota irten zen kalera. Lehen trena hartu zuen.

Esaten dutenez, atzerriko dedaloan galdutako kaleartera itzuli da, barra aurrean jesarrita argazkiari begira edanez ematen dituela gauak eta goizaldeak eurak ere sarritan. Gaztetako herriko argazkiari begira, gibel minez, dedaloko uhartean betirako preso.

Bitan banatuko bagina bezala

Iñaki Uria

Susa 7 / 1983ko otsailean

Eskutitz hau jaso dut gaur eguerdian:

Karlos maitea:

Irabazteko sortu hinduen lurrak bere semerik maiteena bezala. Haritz eder baten gisa hazi hau pinudian. Osasunez jantzi dik hire gorputz lerden eta paregabea, ideiak argitzen dituen su hori piztu zian hire kolkoan izpiritu sakon baten jabe egin hinduenean, eta batez ere, adimen argikoa, erantzukizun azkarrekoa eta arrazoiketa bizikoa borobildu hau.

Lurtar izateak, ordea, bere mugak zekartzak berarekin, eta haritz ederrena ere, hauts bilaka

daitekek mugagabearen egarriz, lortu ezin denaren pipiak janda.

Maitasuna duk gizakiaren arbola zutik irauna-raz dezakeen odola. Odol horrek zekarrek zoriona gure enborretara, odol horrek bihurtzen gaitik zoro. Maitasunez gaituk, hein berean pozez eta ero.

Lili eder batetik bestera ibili haiz atsedenik gabe, ezti klase guztietatik edan duk asegaitz, ia lehertzeraino bapo egin arte; gozoegia iruditzen zitzaian bat, lodiegia bestea, arruntegia hurrena, edota astuna sabaian dastatzen huena.

Aukeratutakoa ez duk inoiz izan hik nahi huena.

Malerus esnatu haiz pagotxa bakoitzaren ondoren, hire gogoa bete nahian hutsarekin egin duk topo gorputz lirainak besarkatzean.

Hutsak habia egin dik hire barrenean. Etsi diok jada. Orain badakik txori berri bakoitza hutsaren beste zori bat dela hiretzat.

Ondoegi konprenitzen diat hirea.

Bazakiat ni naizela hik maita dezakean bakarra.

Alferrikakoa, ordea, ura pasa eta presa jartzea.

Lidia

«Karlos» irakurtzearekin batera konturatu naiz gutuna ez zela niretzat, baina ez diot irakurtzeari uzterik izan. Areago, bigarren aldiz irakurri dut. Gutunean kausitu ez dudan zerbaitek bultzatu nau berriro irakurtzera, nahiz eta oso lotsatia izan ni gauza hauetarako, nahiz eta fintzat jo neure burua.

Lerro horien errenkadan bazegoen ezaguna gertatzen zitzaidan zerbait, etxekoa susmatzen nuena nolabait ere.

Zer ordea? Zerk bultzatu nau niretzat ez zen eskutitz hau irekitzera?

Egia da despistatu samarra naizela, halaber, ez dudala aspaldidanik gutunik jaso, baina horrek ez bide du esplikatzen nik sobrea ireki dudanean niretzat balitz bezala ireki dudala.

Letra hau ez da arrotza gertatu nire begien aurrean, nahiz eta Karlos Mutiloa nire pisukideari zuzendua izan. Dena den, buzoitik hartu dudanean, ez dut uste hartzailea nork izan behar

zuen irakurri dudanik, bidaltzailea, Lidia soil-soilik, begiratu ere egin ez dudan bezalaxe. Letra honekin niretzat behar zuen.

Bigarrengoz irakurri dudanean argitasun izpi batzuez busti zaizkit begiak, etxeko maratila ireki banu bezala; adimena, aldiz, ganbara gauez baino ilunago. Ez zen posible. Nola zitekeen letra hura Karlos berarena izatea? Ez, ez. Ezin nuen sinetsi nekusana. Harri eginda geratu naiz paperari begira.

Idaztankerak ezin zuen Karlosena izan, azkarra baita Karlos baina ez hain zuhurra. Mezuak aldiz bere pertsonarekiko ezagutza handia zerakutsan. Oso hurbiletik ezagutu behar zuen Lidiak Karlos, barrendik esanen nuke, hori esateak dakartzan ondorioen beldur ez banintz.

Hala eta guztiz ere onartzea besterik ez zait gelditu, letra Karlosena zen. Agertu nahi nuke, ordea, nola, hori sinestera ailegatu baino lehen, Karlosen gelan sartu naizen, bere eskuizkriburen batez pareka ahal nezan esku artean neukana, eta froga gero egiaztatu dudana, eskutitzaren aitatasuna hain zuzen.

Karlosen gela bera bezalakoa da, ez zaio ezer falta, ez dauka ezer sobran, usna daitekeen desordena kontu handiz bilatutako ordena bat dela ematen du. Apenas du dekoraziorik, berez antzeman daiteke alferrikakoa litzatekeela, giroa hautsiko lukeela. Ohe zabala bazter batean, mahai handia bestean; mesanotxe bat eta musika ekipoa. Liburuak han-hemenka.

Orain ohar naiteke Karlosen benetako izateaz, hainbat urte berarekin biziz, eta konturatzen naiz bere bizitzaz ez dudala karikatura bat baino egin. Presaka bizitzeak eraman nauela, eraman gaituela, elkarrenganako defentsarako, azaleko ezaugarri soil batzuk besterik ez ezagutzera. Karlos harroa da, edo izan da orain arte niretzat, arrakasta du nesken aurrean eta badaki hori ondo aprobetxatzen.

Kanpotik begiratuta bazirudikeen zoriontsu beharko lukeela, nahiz eta maiz esan ohi didan, «hik bai ez duala problemarik. Sinpatikoa haiz, ondo hator guztiekin. Ni berriz, beti eztabaidetan nabilek. Aprobetxatu egiten naizela esaten zidatek. Gero ordea, ez duk horrelakorik gertatzen. Erabili egin naitek neskek, kleenex bat bezala-

koa nauk beraientzat, erabili eta utzi. Bazakitek nirekin une eder bat igaroko dutela beste inolako problemarik gabe».

Egia esan, ez nion kasu handirik egiten. Nola bada, hori esan eta bere horretan jarraitzen bazuen? Larria iruditzen zitzaidan, dena den, berak zioena, hartan pentsatzen jartzen nintzen bakoitzean. Larria, ze iruditzen baitzitzaidan Karlosek ez zuela inor maitatu bere bizitzan barrena, besteen gainetik sentitzen zela, bera zela maitatua. Eta maitatua izatea ez da aski maitasunean. Ilbehera bezalakoa da, alde batek argia ematen du, baina ilun jarraitzen du besteak. Alde biek eman behar dute argi, oso-osorik distiratsu ager dadin ilargia, maitasuna.

Noizbait aipatu izan dit Lidia. Orain gogora dezaket xarmanki hitz egin ohi didala bere gainean. Ez nion ordea jaramonik egin. Beste bat izanen zen.

Orain, ordea, Karlosen letraz idatziriko Lidiaren gutuna dudalarik nire eskuetan, bere mahai gainean Lidiari zuzenduriko eskutitza dakusadalarik, apo bihurri bat dabilkit soinean tripa janean.

Karlosen mahai gaineko eskutitzak, ez dit frogatu bakarrik Karlosen aitagoa bi eskutitzekiko. Haize txar batek bezala susmo larri bat ekarri du nigana.

Hara zer dioen:

Lidia bihotzekoa:

Hau kontatu zidanan aitonak behin batean:

Salamancan ikasten ari nintzenean, emagaldu «horietako» andere baten aldamenean bizi izan nintzen garai batez. Andaluziarra zen bera, Carmen. Luzea, beltzarana, kopetiluna, betazal handikoa eta aurpegi zorrotzekoa, aizkoraz ebakitakoa ematen zuen. Beldurra sorrarazten zidaten ikatz beltzezko begi bi haiek, bere ahots gogorrak eta bere kamionero izaerak. Azkenengo pisuan bizi nintzen eta nire ate aurrean zegoen berea. Ez nuen sekulan atea irekitzen, oso ondo akordatzen naiz honetaz, baldin eta bera bere gela barruan bazegoen. Hori, ordea, ez zen oso sarri gertatzen. Eskaileretan edo ezkaratzean egiten genuen topo eta maltzurra zirudidan irribarre batez agurtzen ninduen. Jasanezina egiten zitzaidan.

– Ona izan, estudiante jauna!, eta barre egiten zuen nire gorrotoa handituz. Gustura aldatuko nintzatekeen etxez berarekin topo ez egitearren, baina etxe txukuna eta lasaia nuen hura gainontzekoen aldean.

Goiz batean, ordea, ezustean, nagiak ateratzen ari nintzelarik ohean, Unibertsitatera joan ez nendin pisuzko aitzakiaren baten bila, hara hor non atea irekitzen den, eta Carmen nazkagarri hark atetik, bere baxu boz harekin:

– Egunon, estudiante jauna!

– Zer nahi duzu?

Bere aurpegi ilunean, eskale, erruki, erreguzko keinu bat igarri nion.

– Begira, jauna. Mesede baten eske natorkizu.

Ohean segi nuen etzanda, isilik, «nire bila zatorrek hau. Amuan harrapatu nahi naik. Kontuz Tiburtzio!», ene baitan.

– Begira, jauna, karta bat idatzi beharra daukat nire herrira. Egin ezazu zerorrek nire partez –esan zuen apalki, samur eta lotsati.

«Hori al zen? », pentsatu nuen; ondo dago!

Altxa nintzen, mahaian eseri, luma hartu eta esan nion:

– Zatoz hona, eta esan..., norentzat da gutuna?

– Manuel Gonzalezentzat, Jaenen bizi da.

– Zer esan behar zaio? Ea, diktatu!

– ...Manolo maitea... bihotz koskorra... nire maitale zintzoa... Ama Birjinak gorde zaitzala. Eztizko nire bihotz kuttuna, zergatik ez diozu aspaldian zugandik urrun aspertzen den zure uso tristetxoari eskribitu? Zergatik ez diozu eskribitu hainbat maite zaituen zure Carmeni?...

Ia-ia barrez lehertzen hasi nintzen... «uso tristetxoa»... bai, bai. Agoantatu nuen ordea eta galdetu nion:

– Nor da Manolo hori?

– Manolo, estudiante jauna –esan zidan gorri-gorri eginda–, nire nobioa, da.

– Nobioa ?

– Bai, nobioa. Zer pentsatzen duzu ba, nik ezin dudala nobiorik eduki? Zergatik ez dut ba nobiorik izango, gazte izanik eta ezkongai banago?

– Hara! –atera zitzaidan, baina gutuna idazten jarraitu nuen.

Hain zen samurra, hain maitagarria, ze esan zidan aitonak, nik neronek nahiko nukeen Manolo hura izan, gutuna bidaltzen zuena Carmen ez balitz.

– Eskerrik asko denagatik, estudiante jauna. Egin al dezaket zertxobait zugatik? Akaso edukiko duzu alkandora edo galtzontziloren bat josteko premian...

Ezetz esan nion. Urduri jartzen ninduen gainera gonadun txarolesa hark. Argi eta garbi adierazi nion ez nuela bere beharrik.

Hamabost bat egun pasa ziren. Leihotik begira nengoen asper-asper eginda. Ilunabarra zen atea ireki zenean. Carmen.

– Libre al zaude momentu batean?

– Bai. Zer nahi duzu?

– Beste karta bat idaztea eskatu nahi nizuke.

– Bueno... Manolori?

– Eske... begira, estudiante jauna, lagun bat daukat eta horrek ere ez daki eskribitzen. Lagun horrek andregai bat du... Carmen... ni bezala izena du. Idatziko al diozu beste Carmen horri?

Behin ere baino gorriago zegoen, dardaraka heltzen zituen gonak atzamar lodi haiekin.

Susmatzen hasi nintzen, igarri nion.

– Aizu, entzun zer esan behar dizudan –erantzun nion–. Ez dago ez Manolo, ez Carmen, ez arraiorik. Guzti hau zure asmakizun bat da, baina ez naiz zure sareetan jausiko. Ez zaitez nire atzetik ibili, ez baituzu zereginik nirekin. Zurekin harremanetan hastea?, ez. Konprenitzen al duzu?

Bere onetik atera zen. Aulkitik altxa, gelari bi buelta eman, ezpain giharrak igurtzi, eta kopeta zimurtu zitzaion ia kizkurtzeraino.

– Estudiante jauna –hasi zen... buelta eman, atea ireki eta danbateko batez agurtu ninduen.

Eserita gelditu nintzen triste, deskuidatu egin ote nintzen otu zitzaidan. Bere gelako atearen danbatekoa aditu nuen gero. Haserre zegoen gogotik, ezbai gabe hanka sartu nuen. Bere gelara joatea erabaki, eta han aurkitu nuen, ukalondoak mahai gainean eta burua eskuartean.

Larri nabaritzen ninan aitona hau kontatzerakoan.

– Aditu ezazu...

Zutitu zen bera, nigana abiatu begi beltz distiratsu haiekin, besoak airean astindu, eta:

– Bueno, eta ze inporta dio! Bai, egia da. Arrazoia duzu, estudiante jauna. Ez dago Manolorik..., ez eta inolako Carmenik. Baina ze inporta zaizu hori zuri? Hainbeste kostatzen al zaizu luma hartu eta papera zirriborratzea? Berdin geratuko zara zu gero. Ez dago Manolorik, ez dago Carmenik. Ni neroni besterik ez da dagoena. Inporta al du ordea ni izateak?

– Barka –esan nion ezer entenditzen ez nuela–, Manolorik ez dagoela diozu?

– Hori da, ez dago Manolorik.

– Eta Carmenik ere ez?

– Ez da Carmenik. Ni naiz Carmen.

Ez nuen ezer ulertzen. Mahaira joan zen eta eskutitz bat hartu. Hamabost egun lehenago Manolori idatzitakoa zen, ez zuen bidali.

– Hainbeste kostatzen bazaizu Manolori eskribitzea, tori –eman zidan haserre lehengo eguneko gutuna–. Eskribituko dit besteren batek.

– Begira, Carmen, zergatik idatzi nahi duzu gero Correosen botako ez duzun gutun bat?

– Nori bota behar diot bada?

– Manolori!

– Ez da Manolorik eta! –eta malkotan lehertu zen–. Manolorik ez ba da, niretzat okerrago! –eta besoak ireki zituen, ulertuko ez balu bezala zergatik ez ote zegoen Manolorik berarentzat–. Nahiago nuke bat balego... Ez ote naiz ba besteak bezalako emakume bat? Ez diot inori kalterik egiten. Zuk Manolori idatzi diozunean nire partez, nobioa dudala iruditu zait. Ondoren Manoloren partez idazten badidazu niri, Manolo egiazkoa da kasik. Karta hori idatziz gero sinetsi egingo nuke benetan Manolo badela. Senargaia dudala sinetsiko nuke... eta orduan... ez litzaidake hain zaila egingo bizitzea.

Hamaika aldiz idatzi omen zionan nire aitonak, hala Manolorentzat nola Carmenentzat. Negarrez diktatzen eta aditzen omen zizkionan Carmenek.

Hiru hilabete geroago kartzelan sartu omen zitenan. Ez omen zinan nire aitonak haren berri gehiago izan.

Lidia bihotzekoa, ez zakinat zergatik gogoratu naizen gaur goizean nire aitonak kontatutako

honekin. Ba ote dauka zer ikusirik geure arteko maitasunarekin?

Hi aurkitu nahi haut andereren bat besarkatzen dudan bakoitzean. Zergatik ihes egiten didan? Elkarrekin topo egingo ote dinagu noizbait?

Hire eskutitz bat espero dinat gaur goizean. Hire antsia dinat. Horregatik akordatu naun beharbada nire aitonaren kontu honekin.

Erotzen ari naun hire maitasunez. Mendi eta lurrak irauliko ditinat hirekin topo egin arte.

Karlos

Garbi zegoen, egutera eguerdian bezain argi. Karlosek berak idatzi zituen eskutitz biak. Bera zen Lidia, Lidiarik bazen. Egia esan Lidia bazela sinetsirik nago, Karlos bazen, zergatik ez Lidia?

Lasai noa ibai aldera, patxadan. Seguru nago han ariko direla Karlosen edo Lidiaren bila. Uretara bota du bere burua. «Alferrikakoa ura pasa eta presa jartzea» dabilkit buruan bueltaka. Etsaminak zituela, edota familiako arazoren bat, edota desengainuren bat eduki zuela esanen dute, meza ere eginen diote.

Han daude polizia eta suhiltzaileak, jendea ere ugari hurbildu da.

Bidegurutzean, hodeiertza zure ezpainetan lerratu denean, bion bitartean, bitan banatuko bagina bezala.

Alferrik ari haiz, Bonifazio

Juan Luis Zabala

Susa 19 / 1986ko azaroan

Edifizioak oro ari ziren burrunbaz erortzen eta Bonifaziok ez zekien zer egin, nora jo. Hogeita hamar pisu baino gehiagoko edifizioak ere behera zetozen eta harrizko bloke handi batzuek jo zuten Bonifazio, bere gorputz itzela odolezko errekasto ttipiz josita utziz. Mina, bai, gogor samarra zen, baina nahasketa hura eta irtenbiderik eza ziren latzena. Hiri hark ez zuela azkenik zirudien eta Bonifaziok edifizioak erortzen eta erortzen ikusten zituen etengabe. Hiritarren hilotzak apenas ikusi ahal ziren, harrizko bloke piloek estaltzen baitzituzten. Bonifazioren aurpegieran nekea, ezinegona, harridura eta izua nahasten ziren. Une batzuetan alderdi guztietara begiratuta ez zetorkiola edifiziorik gainera konturatzen zen eta bere esku lakarrekin belarriak estaltzen

zituen zarata ikaragarri hura ez aditzearren, urduri... Berriro ere edifizioren bat gainera zetorkiola ikusten zuen arte.

«Noiz bukatu behar ote du infernu honek?», galdetzen zuen bere artean Bonifaziok. Ez zuen ezer ulertzen, ez zekien zergatik erortzen ziren edifizioak, edifizioak ere ez zekien oso garbi zer ziren, baina pena eta beldurra nahasten zitzaizkion haiek ikusterakoan.

Halako batean, hogei bat pisuko edifizio batek bete-betean harrapatu zion burua Bonifaziori, eta une batez ibilgeturik geratu zen, esku lakarrekin burua gogor estutzen zuela; aurpegieran mina nabari zitzaion, espresio latz batean islaturik. Hala ere laster jaiki ahal izan zen, eta gainera zetozkion edifizioei ahal bezala izkin eginez, noraezean ibiltari abiatu zen berriro, azkenik ikusten ez zitzaion infernu hartatik alde egiteko asmo itsuak bultzatuta.

Harrapatuta hago, Bonifazio... Besterik ez huen behar: orain, pixagura... Akabua! Alferrik ari haiz, alferrik, Bonifazio, ez duk irtenbiderik... Mundu guztia burrunbaz etengabe erortzen eta erortzen ari diren edifizioz osatutako hiri amai-

gabea duk. Eta bakarrik erraldoi idiotak iraun ahal duzue bizirik.

Juan Pedro Bengoetxea kalitzeko bost manera

Jose Luis Otamendi

Susa 29 / 1992ko abenduan

EZ DELA ETA BADELA

Partidua aurrera zihoala eta bero-bero. Kea eta lamara zatarra. Aurretik zela Retegi, lau tanto behar zituela irabazteko, besterik ez. Artekariak abasto eman ezinda zebiltzala, Arretxek zuela sakea hamaseigarrenez. Zenbait apustulari haize-errota zirudiela zebilela, besoak dantza zoroan «ba» batera eta «ba» bestera. JPB ere han zela zain, irabazi erraza nondik etorriko. Bentaja izan arren nekea igarri ziola Retegi zaharrari, itsu-itsu zegoela gorriaren alde. Tantoa galdu zuela Arretxek tontamente, 19 eta 16. Mila seiehuni jokoa, zeinua egin zuela JPBk eskuineko

erakuslea jasoz. Gustura ikusten zela jendea batzuk beroan botatako erronkak kubritzeko larri ibili arren. Partidu luzea zegoela oraindik ordea. Afaneko txalotzen zituztela ikusleek pilotarien pikardia eta sasoia. Distraitua zegoela JPB artekariak pilota bota zionean papeletarekin. Hiru ilara gorago joan zela, baina konturatzerako emakume batek ekarri ziola irribarre gozo batekin. Aspaldi bi izotz kozkorrak urtuak zituen kubalibreari tragoa eman ziola. Hura izan zuela azkena. Orduantxe egin zuela eztanda pilotak. Latza izan zela, bertan bi pertsona hil zirela eta ertzain bat ere bai.

HEROIAK

Ordenadore aurrean zegoela eraso zion birus informatikoak. Zentzumenak baldartu zitzaizkion derrepente: entzumena moteldu, bista erdira jaitsi. Alferrik ahaleginduko zen Juan Pedro Bengoetxea jauna zirkinik egiten; betazpietan metatu zitzaizkion ezabatutako emozioen kondarrak. Soraiotasunak gihar eta nerbioak beretuak zituen

mihia ahotik erori zitzaionean. Azken oroitzapengurariak, bizitzako fitxategi sekretuak berehalakoan jan zizkion gaitzak. Bi minutu eta hamaika segundo zeramatzan hilda ospitalera iritsi zenean anbulantzia, garunak ahazmenaren mintz lirdingak hartuak.

Martiartu batailoiko ikurrina gainean zuela eman zioten lur. Jende ugari izan zen hiletan, aurrean ibilizale asko. Ertzaintzaren musika bandak lagundu zituen elizkizunak. Kanposantuan egundo ez bezala harrapatu zituzten klarineteek notarik altuenak.

KONPARAZIO BATERA

Amaren ezpainak bere umearentzat barkamen eske bezala errestatzen zen barea bidezidorrean. Beroa zen arratsa inongo arriskurik susmatzen ez duenaren izerdia bezala. Putzuetan eguzkiaren uhara jarraikitzeko lehiatzen ziren igelik gazteenak igeri eginez esku beteka. Lekukorik gabeko itsasoa baino ilunago jarri zuen ortzia. Boladatan belarra zutitu egiten zen suge

harro saldoa bezala, sugeak etzanda zeuden aho luzeko labanak legez. Trumoia jo zuen eta zotinka hasi zen besoa bihotz gatibu bat bezain larri. Osti-zaparradak haurren ametsak bezala zulatu zituen hostorik zabalenak. Azpian gordea zegoen barea Jainkoak ahaztutako aingeru bat nola. Gogotik hasi zuen txingorra, ertzaina zirudien arrosa gorria harrapatu eta bertan lehertu zuen. Juan Pedro Bengoetxea Imaz zeritzan, «Beltzetan» ibilia behar zuen aspaldiko garaietan.

YUYU

Sargori dago. Juan Pedro Bengoetxea ertzainetako sarjentua ezin du loak hartu. Leihoa zabalik dago, pertsiana botata. Kaleko eta auzo hurbileko zaratak mailaz maila heltzen zaizkio belarrietara: jende eta auto hotsa, telebista-irratietako jardunak, hizketak, zaunka urrunak, soinu defini gaitzak. Belarriak apurka-apurka goataz estaltzen ditu batzuk, potin mutuetara eraisten dira zenbait, eta iturri bakar batek hobesten du gogoa nahigabe, deblauki.

Juan Pedro Bengoetxea ertzainetako sarjentua gero eta garbiago aditzen dagoena auzoko telebista batetik dator. Telefilma, murmurio ulertezina zena, hotsez hots aletuz doa, hitzak eta sintagmak doitasunez lotzen ditu lokartu ezinak. Eta perpaus gardenez osatutako diskurtso bati helduta dago gizon bat loaren hegia dagoeneko ikusten ez dela; haztatuz, ezin lehorra atzeman. Argudioa topikoa da, polizia bat bahituta daukate bi psikopatek. Batak besteari esaten dio ongi lotzeko polizia buila batean, eta pertsianaren zirriztuetatik hiru zartateko entzuten dira. Juan Pedro Bengoetxea ertzainetarako sarjentuak estu sentitzen ditu eskuturrak ipurgainean eta urdail-sabelaldea minbera. Presaka mintzo dira bahitzaileak, ihesa ari dira gertatzen, gauzak lurrean zilipurdika. Juan Pedro Bengoetxea ertzainetako sarjentuak aditu du ahots bat «Txakur puta hori, hau ikusten al duk?» dioena, eta tximetako tirakoarekin atzera bota behar izan du burua, eta baietz esateko gogoa dauka baina ezpainak lehertu zaizkio. «Hau nire andregaia duk eta hirekin nahi duela ziok!» bota du ahots berak; «Uztak hori eta hator hona!» agindu dio

ondotik besteak. Eztarritik behera dario odola, bularreko ilaje izerdituan etzatera doana. Juan Pedro Bengoetxea ertzainetako sarjentuak urrun, oso urrun egon nahiko luke baina ezin du, bere hitz jarioarekin hunkitu nahiko lituzke denak eta ez entzun ezer, ezer ez.

Bere gain ez dago aditu nahi ez duena entzutea. Ez du entzun nahi, badaki zein kate labur ekarriko dion gaizkileen ihesi asmoak entzun izanak. Telebista aparailua amata dezaten, kanalez alda dezaten desiratzeko kemena du eskas. Urrun, oso urrun pasatzen dira jendea batetik bestera daramaten autoak; urrun, oso urrun husten dira tabernak beti legez; urrun jotzen dituzte emazteak etxeetan.

Juan Pedro Bengoetxea ertzainetako sarjentuak ez du aditu nahi baina entzun egiten du entzun nahi ez duena; bi, mila bider entzun du. Luzatu egiten baita ikaragarri hitz bakoitza, zarata bakoitza, aieru bakoitza. Entzun egiten du adiadi hesteetan sartu zaion berotasuna, eta nola hedatzen den maindireetan berotasun morea. Eta entzun egin ditu polizia autoen sirenak, eta «Lasai, lasai!» diotela sabel gainean mantak bo-

tatzen dizkioten bitartean, eta anbulantzia. Juan Pedro Bengoetxea ertzainetako sarjentuak azkena bere bihotza entzun du urruntzen aspaldiko bapore bat bezala. Eta loak hartu du.

BELTZEZ

Astiro dator auto beltza kalean gora. Gizonezko beltz baten aldamenean geratu da, leihatila ireki dute barrutik, zerbait ihardetsi du eta aurrera egin du ostera. Balkoi askotan loretan dira geranio beltzak. Autoak ehun metro beltz egin eta espaloiaren kontra gelditu da. Parkean ume batek ura edaten du kaniletik, inor ez dabil zinbili-zanbluetan. Neska gazte bat etxera doa beltzez jantzita pegarra betea buru gainean. Gidaria atera da eta itsuaren begiratu beltzak inguratzen du bazkalondoa. Txartel bi erosi dizkio eta diru txikitan ordaindu. Gabanaren patrikatik sastakaiaren kirtena ageri da. Pantyak burutik behera sartu dizkio eta estu-estu lotu lepo bueltan. Papar erdian sartu dio gogortasun batek bidea eragotzi dion arte, kokotsa labanaren aho belz-

tuaren gainean abaildua. Zaurietatik oxigenoa sartzen zaio gorputzari, ikusi egiten da. Hiru odol mataza hautseztatu dago espaloian. Juan Pedro Bengoetxea «Itsua», ez lezake inork begizta, zerraldo dago bere kaxetan. Ertzain kondekoratu ohiari zahardade eroso baten esperantza beltza eten diote. Industrialdeko aireak ezabatu du autoa.

Lolitaren klasekoa

Jon Arano

Susa 28 / 1992ko apirilean

«Aita izan hadinean,
arrautza parea jango duk».
Nabokov bat izatera iritsiz gero
arrautza parea eta txistorra.

Malezia, zakukada malezia huen taberna-zulo hartan lan egiten nuenean. Hi aurrean zilipurdika ikusi baino, askotan ikusi ez bahindudan nahiago.

Eta halere, hire etorreraren zain. Zakar, mostradore atzealdean, nengoen lekura arrimatzen hintzen arin-arin, trotaxka batean. Oraindik ez zakinat zerk distiratzen zuen hire muturjean etortzen hintzenero.

Hire zerri-begien likiskeria edota titi llabur haien boluptuositate sorta; ala bisajean antze-

maten zitzainan gosea, ezpainen dardara; denboraren poderioz, ipurtaldea batik bat, zabaldu zain gorputz meharra lujurios?

Gazteen ohizko blue-jeansetan kaltzadorez sartuta, ia kabitu ezinik atzealde estuak, amodiorako helduleku politak sumatzen nitinan. Handik lasterrera ezingo huen geroztik jada izan haizen gorotza disimulatu.

Ez zakinat biotako norena ote zen maleziarik handiena. Erabat *probo* etortzen hintzen, jakinaren gainean ez bahengo bezala. Hamalau-hamabost urte besterik ez, dedios!

Eta falta hintzen berriz, sukalderako eskakizunak noiz iritsiko zain irrikaz ni. Edota fregadera topetaraino bete zain alferkerian; abasto ezin eman txikiteroei eta esku bat norbaitek botako balu gustura hartuko nuela. Ez ninan erregutu beharrik izaten.

Tabernako betekadak baretzen ziren orduak nitinan maiteago ordea. Hitz egiteko, begiradentzako ordu aproposagoak, kafea hartuz bakoitza bakarraren alde banatan. Hobe alde berean bazen. Izkinako hozkailu kameraren ertzaren gainean, punttaren punttan, igual jesarriko hin-

tzen, haren bibradurak hankarteko hazkura errenditu ezinik; harekintxe laztantzen atzera eta aurrera, oharkabean, oharkabean bezala edota oharkabe plantak egiten, besteok konturatuko ez bagina bezala.

Eta nik berriz, momentu horietan, ia-ia burua galtzeko zorian, horretan harrapatuko bagintuzkete ere, ez zakinat zer gertatuko zitzaigula jakin arren, nirera ere estutuko hinduket, kosta ahala kosta.

Nahikeriak gogoa irensten eta, ezin atzeratu, edozein aitzakia jarriko ninan, «ea apaleko botila horretara iristen zaren», nahiz eta gero kalenturak areagotuko zitzaizkidala jakitun izan; gero bakardadean zamalkatzen hindudanean ederto. Baina horretarako, heure keinu lasziboenak nolakoak ziren antzemateko, irudikatzeko fideltasunez, edozein aitzakia emango ninan eta, sarri askotan ezer ez trukean, kostatako oparia bestetzuetan, zeina erreketa guztietatik salbu utziko nuen, hik beso bat altxa adibidez eta besazpia erakuts hezanean. Neska-gorria edo anderetxoa, zer ote hintzen galderari eginiko erantzunak utzi nindinan ase.

Baiezkoa, emakumetxo hintzela, soberan frogatu ninan harriturik. Hiri arropak erosten zizkinana ez zunan astotik erori oraindik, umetzat hindukaten. Titi-zorroen ezak iraun zezala erregutzen ninan barru-barruan eta kamisetatxo haren peko loturarik gabeko tititxoak eta beltzaranago sumatutako puntatxoak maitatzen hasi.

Gauak sukar batean iragaten nitinan askotan, izerdiz blai, jostorratz edota puntapaxa ontzi bilakatu balitzait bezala gorputz osoa, desioa, izerdi eginaraziz hankarteko makilari, heure gerri horiek, anfora, ikusiz istant batez, aurrean edukiko bahinduket bezala. Egunez hartu apunteak, gauez arte obra egiteko.

Inuzente plantak hain ondo egiten zekien hire itxura kopetan nuela hartzen nindinan loak. Egunez nire gorputzean preso egiten nindunan eta ni kieto, ezinbestean, halako begiratuak botatzen hizkidan, deusez bezala.

Arratsez arrimarazten hindudan eta orduan bakarrik ematen soka askea fantasiari. Orduan zamalkatzen hindudan, bakardadean, ederki.

Alde egin ninan zesante azkenik halako batean zuen tabernatik, bai, eta, ezin soporta hire

itxura, ezin agoanta eman gabeko musuak eta igurtziak. Ez egitekoetatik libre nagon, Lo. Igualeko lasaitasuna!

Pasteur doktoreari

Mikel Reparaz

Susa 32 / 1994ko uztailean

Ohatzea. Sukarra. Maindire eta burusi astunen azpian egostea. Ez al da aparteko sentsazioa? Ba ote da munduan mihipean termometro bat eustea baino plazer handiagorik? Eta jarabe mingots hura hartzeko unea iristen denean? Urri dira bizitzan zehar halako momentu ahaztezinak. Hordigarria guztiz eguerdian burusi astunen azpitik lankideak imajinatzea, eztul isekariz.

Eskua jaso beharrean nago. Eskua jaso eta hitz egin, asko daukat eta esateko. Horixe baietz. Entzungo nau irakasle moduko hor aurreko horrek, ulertu beharko du dena errore bat dela. Zorigaitzeko errorea. Bera bezalako mediku serioa naizela, profesionala.

Drogazaleak ezkerrera, toxikomanoak eskuinera. Argituko diot bai nik zein den nire iritzia.

Drogaten artean ni, beranduegi damutu diren *junkie* hipokritez inguraturik. Axuri aurpegiak han-hemenka. Eta ni haien parean. Eskua altxa nahian, keinu lotsorrez. Bata zuridunaren begiak gain-gainean dauzkat, naizenaz ohartuz segur aski. Zein fakultatetan ikasi duen galdegingo nioke. Auskalo zertan espezializatua, behar bada apaiza ere izango da. Izorra bedi fakultatea! Izorra berau.

Eskua jaso beharrean nago, artaldetik alde egiteko.

Halakoetan barreneko ahots honi inguruko istorioak iragazten zaizkio –«nik hamalau urterekin», «nik berriz hamar besterik ez nituen hasterakoan»–.

Hotzikarak ematen dizkit pareta gris horrek, itogin ilunez margotuak. Poster soil batek dekoratzen du, makurra gainera, baina ezin dut han dioena irakurri. Letra txikiegiz idatzita dago, hizki xumez. Gripearen mikrobiotxoak baino are xumeagoz. Gripea, elgorria, nabarreria... nabarreri dosi bat da oraintxe hartuko nukeena, nabarreri kargatu-kargatu bat. Eta hura osatzen

duten milaka izakitxo uniformatuak nire zainetan gora bidali, gal daitezen.

Gogora datorkit elgorria harrapatu nueneko hura. Apartekoa. Miragarria izan zen. Astebete zerutiarra. Klaserik ez, etxean, bero, amaren altzo samurrean murgilduta. Artean enoratzen nuen gaiak suhartu ninduen orduan. Antimedikuntza heretikoak, alegia. Hala jarraitu nuen urtetan, suhar, eta antimedikuntza ikasketak burutu nituen, eta antimediku bilakatu. Antimediku suhar. Fakultate garden hartako laborategiak bereziki erakartzen ninduen. Etengabe kantatzen zuen nire izena, kristalezko ontzitxo ordenatu eta sailkatuen ahotatik eskuarki. Eta ni, elizan sartu den akerra lez, men, hurbildu, neure burua hango jaun eta jabe koroatu arte. Zinez liluratuta bainindukan apal sail hark, kolore guztietako likidodun ontzi haien sostengu, eta ontzi bakoitza bere etiketaz, edukiaren ezaugarri. Izen exotiko haiek aditasun berezia piztu zuten nigan, alkoholikoa upel artean bezala. Haurra gozotegian sentitzen nintzen. Ongi oroitzen dut altxor haren kokapena, formol pote eta primate kaskezur bilduma haustsuaren artean. Hantxe zeuden birus

arraroenak berzeuzkaten ontzitxo etiketatu haiek, urrea baino distiratsuago mantentzen nituen poteak. Poxavirus, Mixovirus, Rhabdovirus... geroz eta arruntago egiten zitzaizkidan izenak, geroz eta kutunago.

Gogoan dut oraindik lehen egun hura, osasuntsuegi nengoen eguna, apal haren aurrealdean etsita. Xiringa bete orthomyxoviridae izan zen, besterik gabe. Gripe arrunt bat. Erpuruaz bultzatzen nuen heinean sentitzen nituen izakitxo haiek zainetan gora, astebeteko lasaitasuna emateko helburu bakarraz. Eta antimedikuntzaren meza beltz haiek, bata bestearen atzetik, gaurdaino iraun dute. Gripearen asteari barizelarena jarraiki baitzitzaion, eta hari zazpigarren zenbakia zeraman ontzitxoarena. Baina nire jakinmin asegaitz hark urrunago eraman ninduen, eta hasiera batean jokotzat neukana obsesio itxura hartzen joan zen, pairaezin bihurtzeraino. Ezin nion tuberkulosi edota malaria pixka bat gabe eutsi, eta gaitzez gaitz ibili behar izan nuen etenik gabe. Gaurdaino.

Uste dut bata zuriduna ez daukadala jada so. Egia esan ez da inon ageri. Eskua jasotzen ikus

nazan nahi nuke, baina beranduegi ez ote den nago. Gela hutsik baitago egon, eta fluoreszente bibrakorrak isilik. Hobe nuke nik ere alde egin, bai. Hala ere entzun beharko du bere kide anti-mediku heretikoak esan beharrekoa, horixe baietz.

Dena den, rhabdo... rhabdovirus dosi batekin konforme. Oraingoz.

Louisi eskerrak.

Aitonaren kotxea (eta ni hemen kartzelan)

Maripi Solbes

Susa 12 / 1984ko uztailean

I

1 Kotxe zuria.
2 Aitonarena.
3 Mugitzen zen.
4 Bide luze batetik.
5 Berdea.

II

1 Ez dut hemen egon nahi.
2 Atera egin behar nauzue.
3 Eta kantak nahi ditut entzun.

III

1 Horrelako bidaia politaren ondoren.

2 Nik ez dakit ezer.

3 Eta noiz arte judizioaren zain?

4 Gero loreak ikusi nituen.

5 Moreak, berdeak eta horiak.

IV

Eta arbolek kasik eszenario osoa betetzen zuten.

V

Ai, ai, ai.

–I–

1- Bai kotxea luzea zen eta zuria ez motza ezta beltza, bai seguru aski motza eta zuria. Eta ondo gindoazen bertan bidea hartuta, astopista hartuta horrelako arratsalde gori batean.

2- Aitonarengandik datorkigu kotxea, eta berak taller batean lan egiten zuen begioker bati

erosia, hala zioen behintzat urtean behineko famili bazkari ondoreneko txolaz.

3- Geldirik ez zen ba egoten, hara eta hona, goititu zein beheititu, argil ala hilargiz, hilargiz ala bilargiz, mutu ezin zuen bezala, geldirik ezin egon.

4- Bide luze batetik ibiliz astearte hartan, ez zen aldapa bukatzen, leunki igotzen bagenuen ere.

5- Arbolak berdeak eta are gehiago kasik berde ez zena ezin suma baitzitekeen. Bi marra desbideratu dibujatuetatik badoa aztarnarik galdu gabe izpi guztiak bustitzen dituen kolorea.

–II–

1- Eta zergatik egon behar dut hemen nik ez badut nahi, nork erabaki zuen ni hona ekartzea. Zein zirrikitu aldrebesak dituzten gertaerek, eta non dago nondik atera seinalatzen duena?

2- Nik ezin badut zuek atera beharko nauzue, hauek esanda maiz aspertzen dut neure burua.

3- Txorien kantak aurreneko. Han arratsalde hartan entzuten nituen bezalakoak. Eta musikarenak, abeslarienak, umeenak eta maitagaienak.

4- Nola jakingo dut ba zer gertatu zen erdi lo egonda, ametsen munduan gehien honetan baino, lepamotz eta janba bera ere gabe, hantxe paisaia hartan hain zerbaitez horditurik. Akaso istripu bat.

5- Hala ere. Hala izanda kartzelara ekarriko nindutenik ez nuen espero.

–III–

1- Benetan zoragarria zela arbolen adarretan joz, sasi hostoetan jotzen zuen argia. Eta itzulirik ez, segi, segi, segi, eta sorgintasuna nabarmen finki adar, hosto, arbolaren atzetik eskua azaldu ez bazuten ere.

2- Nola esango dizuet ba, nik ezer ez dakidala. Gor gogorrak zaretela zuek? Eta mutuak? Ba ni mintza banadi ere ezin letania hasieratik hartu ez amaieratik bukatu. Nik ez dakit ezer.

3- Agian hilabete honetan.

4- Bai bazirela ere gogoratzen dut, leihatilen bi aldeetan.

5- Batzuk petalodunak, ezberdinagoak besteak, zahar eta gazteak, txiki eta handi, moreak, berdeak eta horiak loreak.

–IV–

Baina ba ziren arbolak ere eta haiek bista altxa nezakeen punturaino dena estaltzen zuten. Pinu kolorea eta itxura zuten. Adarrak kasik simetriko.

Portuan

Joseba Urizar

Susa 18 / 1986ko uztailean

a real story by
Joseph A. Oldtown
(Dedicated to Ed Jimenes)

Arratsalde osoa portuan eman nuen. Arratsalde puta osoa portu zikin hartan itxaroten, eta han ez zen inor agertzen. Eguraldi eguzkitsuak zertxobait lasaitu ninduen. Berrogei metrora begira plantatu zitzaidan tipotxo bibotedun eta beltzaranak ez zeraman txaketa edo antzekorik: Ez zeraman piparik. Horrexegatik diot eguraldi ederra egoteak lasaitu ninduela, inondik inora ez eguzkizalea naizelako edo beste halako arrazoi tentelen batengatik. Eske, joder, nolako itxura bibotedunarena, eta tipoa neuri begira, bista apartatu gabe. *Beno,* pentsatu nuen, *piparik ez*

darama, bederen. Kontrabando zain legokeen sureño bat izan zitekeen, edo antzerako zerbait; gainera, nik bai, nik narru beltzezko txupa neraman... eta 38a txupapean. Dena den, ez didate pagatzen jendeaz fida nadin, are gutxiago jende horrek narru beltzarana baldin badauka. Nik bera kontrolatzen, eta tipoa fijo neuri begira arratsalde saindu osoan bista nigandik zentimetro bakar bat ere apartatu gabe; urduri samar jarri ninduen morenotxo madarikatuak, jakarik ez zeraman arren. *Gaixoa larregi hurbiltzen bada,* esan nion neure buruari, *kresalezkoa izango du azken trago garratza.*

Beroa gorantz zihoan eta, lagun, ez zegoen portuaren luze-zabaleran itzal bat aurkitzerik. Garagardo hotz bat edatea bururatu zitzaidan, baina kioskoa kaiaren beste puntan zegoenez, haraino iristeko sureñoaren albotik pasa beharra neukan. Disimuluz buelta erdi egin, morenoari bizkarra eman eta, eskua besapean sartuz, 38a amartillatu nuen. Nire abeslaririk hobetsiena kantatzeari ekiteko prest. Norberaren soa bestearengan finkaturik, hiru bat metrora neukanean ikusi ahal izan nion aurpegia zeharkatzen

zion ebatondo izugarri, nazkagarri hura, bekokian hasi eta ezkerreko begia, masaila eta ezpainak erdibitzen zizkion ebatondo higuingarria. *Hori ez da, ba, lan-istripu baten arrastoa,* iruditu zitzaidan, *ez behintzat lan dezente batena.* Eta nire bat-bateko larridura ahal bezala zurituz, kioskorantz jarraitu nuen. 38a besape blaituaren kontra garbiki sentituz, gertu neraman eskua behar bezain laster mugimendu arin batez martxan jartzeko bere mekanismo sofistikatuki zehatzok. Ez zen, baina, halakorik gertatu: Bost minutuko epean barra ferde eta koipetsu batean ukondoa euskarriturik, Big Prince garagardo lata eskatzen aritu nintzen; sureñoa, nigandik berrehun bat metrora, geldi eta neuri fijo begira, kabroia.

«Eskerrak» erran nion kamarera ederrari bere ugatz parea muturraren aurrean plantatu zidanean, *geure amak ere bazuen halakorik* pentsatzen nuen bitartean. Bi tragotan irentsi nuen Big Princea, lagun, nire garagardo markarik begikoena, Englandik inportaturiko bitter jatorra, aldiz aldika ez kamarerari ez morenoari bista gainetik kendu gabe. Nire alboan gazte talde

batek aktibitate berari ekiten zion, txiste eta barre algara handien artean, eta bazegoen bertan ere bista finkatzeko kostaldeko printzesa freskorik. Euren berna biluzi eta beltzarantxoak kontenplatzen barneratu nituen hurrengo hiru Big Princeak.

Arratsaldea aurrera, garagardoa edan eta edan egon nintzen eguzkia jaitsi eta freskatzen hasi zen arte. Bat-batean amarenganako oroimenak baztertu eta gaztetxoak joanak zirela konprobatu nuen. Bakar-bakarrik nengoen barra ferdearen kontra, eta morenoa bere talaian geldi. *Motel,* bururatu zitzaidan, *garesti pagatzen dituk halako okerrak batzuetan, luzaroan egon haiz tipotxo horren eskuetan; zenbat denbora pasatu ete da?* «Son tres con cincuenta pavos, preciosidad» izan zen nire galdera erretorikoei kamarerak emaniko erantzun erabatekoa. Bederatzi Big Prince lata koipe artean zeutzan. Ordaindu eta alde egitekotan nintzela, baporearen po-po-poa aditu nuen. Hor dator. Han zetorren, bai, azkenik, txalupa madarikatua. 38aren

gainetik eskua leunki pasatu eta sureñoari azken begirada bota nion. *Ez dago zertan arduratu, fulano horrek ez du ikararik egin baporearen hotsa entzutean, beste zerbaiten esperoan egongo da* imajinatu eta ontziralekurantz abiatu nintzen, lasai baino lasaiago, zigarro bat piztu eta errez.

Uretan, kordoka, txaluparen silueta sumatu nuen. «E!», oihu egin nuen, «E!» berriz ere; baina inongo erantzunik lortu gabe. Poltsikotik linterna atera eta «Mike, Mike!» ozenki esanez, txaluparen gainaldea barritu nuen fokuarekin. Han zegoen Mike gizagaixoa, aurpegia deformatzen zion zulo zabaletik odola zeriola... eta bere alboan beste *morenotxo* bat irribarrez, xut, 45 automatic harekin apuntatzen ninduela. «Zer egin diozue Mikeri?» esan nuen erdi negarrez, tipoaren espresio ikaragaitza begietan iltzaturik neukala, bere piparen ahoa bezalaxe. «Eres pájaro muerto, rubito», bota zuen ahots batek nire bizkarretik, giltzurrunetan labankada hotza sentitu nuen une zehatz hartan: kristolako korrokada egin, *amatxo maitea* aldarrikatu eta bertan behera erori nintzen, konortea galduta.

The fucking end

Kristalezko kanika batean zehar

Eneko Olasagasti

Susa 9 / 1983ko azaroan

Neskatoa eserita dago. Eskuak bata bestearen gainean, bata bestearen gainean dauden izterretan ezarriak dauzka. Begiradarekin alde batetik bestera dabilen zuri-beltzezko irudia jarraitzen, zerbait bilatzen du. Begiak ez ditu pertsonaia mugikorretik kentzen. Zerbaiten beharra baino premia. Zain, igarotzen diren une guztien antzera.

Neskatoa eserita dago kafetegian zuriz margoturik dauden burdinazko aulkietako batean. Parean era berdineko mahaia eta gainean itxaronez hoztu den kafesne katilu erdia, azukrerik gabea. Buru erdian duen erretenetik bi aldeetara ile koipetsu, beltz eta kizkur gabea bakantzen

da, begien parean gantxo batekin eutsita. Simetria galdu baten bila.

Begirada alde berera zuzentzen du ia denbora guztian, kamareroak ziztu batean daraman bandejari begira. Besoa goian, bezeroek, mahaiek eta aulkiek sortzen dituzten oztopoak gainditu z. Begirada bandejan islatzen zaio, ertzean, etengabe, eskaparate baten aurrean jostailu preziatuena begiratzen den bezalaxe. Erregeen zain dago, eskutitza bidali eta erantzunaren zain.

Neskatoak ordu asko pasa ditu aulki zurian eserita, mutilaren etengabeko joan-etorriak zaintzen. Plazer berezi bat suma daiteke bere aurpegian, mutikoak bira bat aprobetxatuz begiratu eta irribarre egiten dionean. Horretaz aparte beste ezer egongo ez balitz bezalaxe. Inork ez dio erreparatu bien artean sortu den konplizitateari. Kristal hotsak noizbehinka hausten duen zurrumurru bat besterik ez da entzuten. Atetik barrena mutikoaren silueta galdu egiten da. Burua jaitsi egiten du orduan eta, magalean dituen eskuekin oharrak eginez, atzamarrekin ez dakit zer kontatzeari ekin dio. Zazpi kontatutako-

an burua altxa du berriro eta zain geratu da ate aldera begira.

Baina oraingoan ez dago esperotako irribarrea, eta beti bezala egin beharrean, ezkerraldetik, bera eserita dagoen lekutik eskubirantz jo du zer edo zer ezkutatu nahiko balu bezala. Neskatoak, berriz, ez dio begiradarik kentzen, eta orain ez dio bandejari begiratzen, aurpegia bilatzen dio interes bereziz. Azkenik, mahai guztiak zerbitzatu eta gero, beregana hurbildu eta espresio ilun batez, kafesne bat luzatuz, ahopeka esan dio:

– Nagusiak esan zidan hau dela azken kafea, hire azken kafesnea hemen!

Beste ezer galdetzeko denborarik gabe, mutikoak berehala eman du buelta, bi mahai pasa ondoren atetik desagertzeko. Neskatoak burua jaitsi du eta hitzak kontatzen hasi. Zazpigarrenera inoiz baino lehenago iritsi eta burua altxa du kamareroa berriro noiz azalduko den zain.

Neskatoak eskuak magalean ditu, baina orain ez du ezer kontatzen, eta malko bakarra konta

daiteke bere ezkerreko masailean, kafetegi aurrean dagoen bankuan eserita. Denbora osoz ikus dezake mutikoaren irudia, urrunago, bandeja goian daramala mahai batetik bestera. Orain-dik ere bueltak aprobetxatzen ditu ñabardurarik gabeko irribarre apalago bat zuzentzeko. Neskatoak begiradak zenbatzen ditu orain, eta noizbehinka alboko Aurrezki Kutxako erlojuan hamabiak arte falta diren minutuak ere bai. Hamaikak eta hamar dira.

Neskatoa eserita zegoen. Esku bat goian zuela alde batetik bestera zebilen kamareroaren arretaren bila. Kamareroaren buelta bat profitatuz nabarmenagoa egin zuen deia, eta honek bazihoala adierazi zion. Beste mahai batetik pasa, zerbitzatu eta hurbildu egin zitzaion.

– Zer hartu behar duzu?

– Kafesne bat mesedez.

Nik hogei duro poltsikotik atera eta mahai gainean utzi nituen. Aurrezki Kutxako erlojuari begiratu nion. Hamaikak ziren. Idoia gaur ere ez

da zitara azaldu. Kristalezko kanika eskuan gor-
deta etxerantz abiatu nintzen.

Nolabaiteko bushtarrak ginen

Itxaro Borda

Susa 26 / 1990eko uztailean

A la vora del mar. Tenia
una casa, el meu sommi,
a la vora del mar.
Salvador Espriu

Trenak Bush herrialdean zehar ginderamatzan. Azken hilabeteotan eskualdeko bi tribuak gerlatan higatzen ziren, eta leihotik ikusten genituen arboletan, dilindan, gizagaixo urkatuen ugaritasunetik beretik, susma genezakeen borrokak aski gogorrak zirela. Oraindik erre usaina nabari zen, nahiz treneko aire kondizionatuak urrina doi bat arindu. Halarik ere, ageri zen, gorputzak nonbait kiskaltzen ari zirela.

Zelai desolatuetan, noiztenka, haritz solteak mirets genitzakeen. Lehenago, liburuek zioten eran, lurra bere hariztien edertasunaz ezaguna zen, jakintsuen artean hasieran, eta gero berria hedatzen zen arabera, jende xeheen artean. Gure ondoan jarria zen bushtar bat negarrez urtu zen, bidaiari ezaxola batek haritzondo alargundua kolorezko argazkitan hartu zuelarik:

– Ez duzue eskubiderik...Arima ebasten diguzue... Ments gelditu behar ote dugu? Horrenbeste hilotz jadanik, betiko egoitzarik gabe... Ez daukazue deretxorik... Madarikatuak zarete, bosgarren belaunaldiraino...

Gizona isildu zen. Haserreak ezpainak hagun zuri eta malkoz estali zizkion. Gure konpartimenduan lauzpabost europar zeuden. Haientzat isilunea hainbat hobea zen, naski, bortizkeria telebistan edo zineman begiratzea baizik ez zutelako onartzen. Baina, aurrean, sufritzen ari zen herrestaren oinazeen seinalerik ez zuten jakin nahi, sufrantza, eta, noski, sufrantzaren astuna, izurritea bezala, inguru bakartietan heda zitekeelako. Halatan, aburu estremistenak, ahoak ireki gabe, entzuten ziren, moda katalogoetako manekino

perfektuez aparteko bizitza errealik ez bailegoen.

Hiri hautsi bat ireki zen ortzaizean. Etxeak, denak, nola balizko istripu atomiko baten ondorioz, lurrean zeuden, mila puskatan xehekatuak. Geltokia arras emeki trabeskatu zuen gure trenak, geltokiko buruzagiaren kopetan odola perlatzen genekusanean. Batek zion, algaraz, beldurra gordetzearren:

– Bere hondar trena...

– Ba... pasatuko da besterik ere... –erantsi zuen, abilagoren batek.

Zirudien bushtarren herriaren suntsitzeak ez zietela den mendreneko axolarik ematen. Zirudien, planetaren aldetik, populu anitzen desagertzea normala zela.

Abil hark, belaun gainean, bere maleta zabaldu zuen, eta *Corriere della Sera* irakurtzen hasi zen. Minik ez zegoen, hauetarik bakoitzak aferen munduan murgiltzen ziren, urrearen kurtsoak, Chicagoko merkatuan, aztertzen, emazteak zein haurrak leku segur-segurrean utzirik. Betaurrekoak, noiztenka, leitzaile segituari sudurrean le-

rratzen zihoazkion; jestu mekanikoz, prestuki, altxatzen zituen. Harmonia mundi...

Trenbide ertzeko xendretan familia osoak, lerroan, ihesean joaten agertzen zitzaizkigun. Ardura, nagusia buruan, eta aiton-amonak umeekin, astiroago atzean. Gosearen edo ur zikina edateren erruz sabel hantuegiak erakusten zituzten. Bagoiko emakume lotsatiek aurpegiak mokanes usaintsuz kukutzen zituztenean, gizon tripazuriek «Ze miseria!» oihukatzen zuten. Coca-cola gizarteak, sosarekin batera, kristoren konparazione boterea zeukan. Bazekien ona non zegoen, errentablea, produktiboa zein alorretan kokatzen zen, zein tokatu zitzaion loterian irabaztea ere, itsuskeriaren kriterio moralak oro gogoan zeuzkaten, gainera. Eta miseria itsusia zen, Jainkoaren gaztigu mota bat, gure herrian, langabetua izatea bezala, bekatoros sozial bilakatzearen marka. Dena dela, ordenadoreekin, globoaren pillagea programatua zen.

Ordu bat aitzinago iragan tren batek erdibitu gorpuak, lur ustelduan, sakabanatuak ziren. Behialako andere pulposak orro bat atera zuen, norbaitek lizunki ipurdi mazela ferekatu bailion:

– Krudelkeria hau! Herri atzeratuetan, bizitzaren prezioa zer den ez dakite!

Jarraian, somnifero pastilla bat irentsi eta itsutasunaren loak eraman zuen, bere senar maitearen sorbaldetan luzaturik.

Bitartean bushtarra iratzartu zen. Negarra zerion. Konplexu turistiko baten planak, boligrafo gorriz estudiatzen zituen ingeniari bati eldarnioka hasi zitzaion:

– Zuek emaztea hil didazue... Poliziek etxetik ebatsi didate... Biharamun goizean, kartzelako atean, zauriz josia... ahuldua... hila... zuen sistemak torturatua... Aberastasunaren uhartea, hitz bitan, zartaraziko dut... Zuen zentral nuklearrak oro... Zuen ausaparke erraldoi guziak... Hemen, eskuz datxizkazuen diamante meategiak denak... Madarikatuak zarete... Emaztearen gorputza... Oi hainbatetan laztandua!... Zulo komun batean desaragitzen doa zuen lehiaz...

Ingeniaria trenputxartzeko puntuan zegoen, eta hortz artean, apenas ezpainak higitu gabe, murmuratu zuen:

– Ez da nire falta... Erruduna gobernua da... Hari zuzen izkiozu zure mendekuak...

Bushtarra, bortitzago bihurtu zen:

– Eta gobernua, nork hautatu du?

Kostume grisean jantzi gizona moztua geratu zen. Alabaina, herriak indar biziz husten ziren, hizkuntzak masakratzen, eguzkia lasai hartzen hondartza politetan, kasinoetan dolarrak jostatzen, indigenen alaben bularrak hortz zorrotzez ausikitzen, sabelak sardeskatzen, lantegiak hersten eta poliziak aireko hantuz bidaltzen. Erraza zen, bakea, bakea, bakea, nehor ez bide zen responsable, nori oldartu behar zion semea preso zeukan amak? Ingeniaria isilik zegoen, arrapostu serio edo razionalik eskain ezinean. Nerbios. Ez zuen ulertzen. Politika kontuak politikari ofizialei uzten zitzaien, eta soilik ausaparkeen eraikitzeaz arduratzen zen.

Beste bagoi batetarik, Zerukoari eskerrak, bi parapolizi etorri ziren –trena, gure ustez, mamu horiez betea zen– iskanbilen zaratak aditu zituztelako; aberatsa bushtarraren ukabiletarik askatu, salbatu zuten. Ingeniariak, eskolak Harvarden eginik, zainak laster jabaldu zituen. Guardek, esklaboen ondorengoa, gogorki zanpatuz

eraman zuketen; honek, ordea, irainka eta garrasika ziharduen:

– Putasemeak!... Emaztea non ehortzi didazuen erradazue!... Zuen lurra sutan jarriko dut... Zuen uniformeak mitriolaz erreko... Eta herriaren arima errebeldeaz suntsituko zarete... Emaztea...

Zibilek trena eremu zabal neketsu batean pararazi zuten. Jendeak jautsarazi, bozgorailuz abisua hedaturik. Nik zure eskuttoa tinkatu nuen, eta besteek bezala egin genuen.

Xefea iduri zuen betaurrekodun guardiak mintzaldi bat eman zuen ikaran zegoen populuari, ikaran, bidaia nehoiz bukatuko ez zela sinesten baitzuen:

– Orain, begira ezazue... Zer dagigun kaskagogor miserableez... Irakaspen izan bekiozue!

Parapolizietarik handienak larruzko paltopetik pistola bat atera zuen, zilarrezkoa, kanoia, odoletan, puskatua zen bushtar oihukariaren kopetan zuzenki pausatuz:

– Herriaren arima errebeldeaz suntsituko zarete!

Tiro lehorrak, inguruaren desolazionea, barbariaz bete zuen.

Zure eskuttoetan herabea nabaritu nuen, dardaraka. Gero denak gure bagoi blindatuetan kokatu ginen, parapoliziez eskoltaturik. Ingeniari zurpailaren begietan poza irakur genezakeen:

– Kloporta bat guttiago!

Ordura arte pentsamendu bakunetan galdua zirudien mutiko gazte pottoloak ahoa ireki zuen:

– Zergatik kloporta? Gure gisako gizona zen alta...

– Baiki –ihardetsi zion managerrak–, baina mundua horrelako ero sentimentalez gainezka dago: ez gaituzte dirua irabazten lasai uzten... Eta badira herri hauetan milioiak garraiatzeko... Hirietan jendeak badaude milaka hemengo exotismoaz gose direnak... Eta aski kario ordaintzeko prest diren gizakiak, hegazkin supersonikoz honaratzeko...

– Espazio huts hauetara?

– Hutsak?... Bushtarrak badaude behintzat... Eta segur naiz ulertuko nauzula –irri karkaila larrian jarraitu zuen ingeniariak.

Parapoliziak iragan ziren, zenbait ordu lehenago bidaiako gertakaria umetu zen bagoiaren aitzinetik. Keinu konplizez urrundu zitezkeen. Eta mutiko gazte pottoloak ez zuen konprenitzen, benetan, astoa zen ala?

Orduan, ahurra biloetan pasatuz, ingeniaria esplikazio zehatzagoen emateari lotu zen:

– Begira... Lur hauetako bizidunak, izugarri trebe dira lasterketan... Duela zenbait urte Cocalandiako maratoiak oro bereganatzen zituzten... Zera... neke da erratea... beno... horra... GIZA IHIZI LIBREaren ausaeremua nahi genuke antolatu, gure megalopoletako happy fe batzuendako.

Gazte pottoloak ez zuen hitz gehiagoren beharrik. Jargitik altxatu zen, eta komunetarantz bideratu.

Zure ondo-ondoan plegatu nintzen, merkatu askean erosi nuen palto merkeaz besaingoetako oilo larrua disimulatzen saiatzen. Nik ere, nire aldian, beldurra zer zen ikasten nuen. Ingeniariak, zure loa eta nire hotza susmatuz, treneko leihoa itxi zuen. Ametsaren globoak kariziatu ninduen: minez estekatu mundu berdinean genbiltzan.

Zenbait orduren buruan iratzartu ginen. Konpartimenduan bat eskas zela konturatu ere. Preseski, parapoliziek tiroz hil bushtar harekin zebilen tipo mutua. Zuk, duzun aire inozenteaz baliatuz, eskatu zenuen:

– Baina, non dago mutua?

Erantzuna ezpain lodi alaietarik etorri zitzaizun:

– Zuek lo zinetenean, trena berriro arrestatu zuten parapoek... Tipo mutua baldin bazen, ez zen ahula... Paperak miatzera jin parapo bati labana sartu zion sabelpean... Eta exekutatu genuen... Guardiak ohore hori utzi dit... Zoriona... Vietnamgo gerlatik itzuliz geroztik, ez nuen horrelako atseginik erdietsi...

– Zinez, ihizi librearen ideia oso ona da...

– Bai... Badakizu, Cocalandiako psikologo errespetagarrienekin estudiatu dugu proiektu hori... Jakin ezazu, lagun proximoaren erailketa, gure gizartean, anbizioneaz, konkurrentzi zerrendaz, botere nahiaz sublimatua dela... Ez, ordea, horregatik desagertua...

– Oso ideia ona... Segi ezazu...

– Giza ihizi librean, badakizu, nagusiak langilea, edo viceversa, iskanbila batengatik hiltzeko ordez, bere pultsio nahiz instintuak aska ditzake bushtar hauen kontura, eta bake soziala betirako finkatzen dugu...

Gohainduraz igeri, bata besteari so geunden. Trenbide hegietan auto kiskaliak, itzulipurdika, zenbatzen genituen. Karrika izkina batean haur txirrindula bat agertu zitzaigun. Emozionea nola gorde ez genekien, guk ere Haritzaren Arimaren Egunerako gure umeei bizikleta bana oparitzea erabakia baikenuen gerla deklaratu ziguten aurretik.

Niemsan hiri nagusiko auzo aberatseko geltokian paratu zen trena. Lau orenez hor egon beharra zuen, ordena militarren beha, nehork ez baitzekien, zein norabide hartuko zuen suge zatikatu luze honek.

Bizikleta bat erosi.

Itsasoraino hegalda.

Denborak berdin-berdin korritzen du eta

Iñaki Uriarte

Susa 20 / 1987ko apirilean

Hantxe zegoen aktoresa, belauniko, bazterrean, negarra zeriola, zotin batean galduta etsipena azaleratu guran. Masailak tentsioaz gorri, eta begiko zuria ere tankera berean. Ordu pila bat ziren berton zeudela antzoki zaharkitu eta lohitu horretan. Neguko tenperatura hotzak eskuak kizkurtzen zizkien besaulki erdi hondatuetan jesarritako dozena erdi lagunei.

Larruzko jaka beltzaren azpian atertuz Anttonek –zuzendariak– etengabeki aztertzen zituen antzezlearen bilakaera urduriak. Eszenatokiko neskari berez ateratzen zitzaizkion plantak, eta besoekin zein gorputz osoaz sortzen zituen keinu erritmikoak. Tarteka-marteka zuzendariak ohol-

tza gaineko irudi hauskorra geldiarazten zuen, zenbait agindu eta iritzi berri emateko. Segituan, ostera be hiruzpalau ordutan zehar errepikatzen zegoen eszena bera berrasteko eskatzen zion ahots finkoz.

Saiatzen ari ziren monologo hori funtsezkoa zen obran, bakarrizketa indartsu horretan baitzetzan ikuslegoa hunkitzearen sekretua. Zuzendariaren ustez ez dago aukerarik, bikain aterako da eta kito. Emanaldian borobilki txertatu arte ekiteko asmoa dauka, ondo lotu edo behintzat bera gustura geratu arte bai.

– Ez, ez, eta mila aldiz ez! Zer daukazu gaur? Lotan dirudizu, zertarako nabil hemen ekin eta ekin ez baduzu aditzen? Zer aurreratzen dugu neuk orientabideak eman eta gero zeuk nahi duzuna badagizu! Ane, ederto dakizu zure pertsonaiak kemena erretzea eskatzen digula. Nola sinetsiko du hor jesarrita dagoenak familia osoa galdu duzula Gernikan indar espresibo handiagoa ematen ez badiozu? Ea, hasi berriro. Isuri malko gehiago! Baitaratu behar duzu sakonki egoera, gogoratu umezurtz geratu zarela bonbardaketan. Gogoratu!

Anek, aurpegia gorri-gorri, lotsaturik, ostera be ekin zion bakarrizketari: Ordubete geroago oholtzan arnasa gabe porrot egin zuenean, zuzendariak saiakera gelditu eta hurrengo egunera arte atzeratzea erabaki zuen.

Talde osoa ari zen presaka. Antzezlana aurki kontrataturik zegoen estreinaldirako, eta ordurako dena prest eta bukatuta eduki behar zuten. Oraingoan ere ohi bezala denboraz urri zebiltzan, gauza arras atzeratuta zihoan.

Antton zuzendariarentzat lan honek berebiziko garrantzia zeukan. Berarentzat Gernika herri zahar honen ikurra zen bilakatua, etsaiak zapuzten ahalegindu ziren herri osoaren sinboloa. Bere ustez bizia gorde zutenen gorrotoa, etsipena eta amorrua itzal gabe erakustekoak ziren. Horrela, gordinki, inolako gupida barik. Ane ez zegoen egun horretan ondo, hala atzematen zuen, baina besaulkitik ikusita ezin zion ezertan lagundu, ziur aski bere arazoak izango zituen.

Etxera heldutakoan Ane apurtuta dago. Bakarrizketa berbera behin, bitan, hamar bider erre-

pikatzea latzegi gertatu zaio gaur. Neskatila gernikar bizikondoarena antzeztea atsegin zitzaion, baina egun uste baino askoz txarrago suertatu zaio dena.

Apartamentuko atea zarratu ondoren lasaitasunez hartzen du arnasa. Zuzendaria tirano txiki bat iruditu zaio, gainera edonork eduki lezake egun txar bat. Lana albora utzita, kafe beroak berpizten du pittin bat, iluntzeroko kafea galletekin. Gelara sartu da, txokotxo gozo horretara, beldur denean edo bakarrik sentitzen denean aterpea ematen dion leize sakratura. *Ze gozo! Ummmm, ohe apatza...* Lumardia jarri kokotepean eta lasaitu, bost minutu paregabeak.

Gortina artetik aurreko etxadiko leiho marroiak ikusten dira, monotonoak, aspergarriak. Burrunba batez heldu zaio gogora atzo Anderrekin izaniko azken errieta. Ezer berezirik jazo gabe gauzak ez zihoazen arestian legez. Bizikide lagunak behin baino gehiagotan –eta bart berriro– aipatu zion egokiena zela banatzea eta bakoitza bere kasa aritzea. *Norbera bere etxean eta horretarako gogoa daukagun egunetan biok elkarrekin.* Anek, dena den, ez zuen askorik si-

nesten holakoetan, eta gaia ageri zen guztietan Anderri iheslariarena leporatzen zion. Ez zekien fijo norengandik edo zergatik baina ihesean zebilela igartzen zion. Maiz aurpegiratu ere ihesaren bidetik ez zuela batere lortuko, ez zuela bere burua ez inor engainatuko. Baina dena alferrik antza.

Atzokoa zela eta gaurko eguna angustiaturik eman du, kontzentratu ezinean, galduta; eta mingotsena izan da talde osoak igarri eta jakinarazi diola. Baina, nola azaldu haiei guztiei lehen batasuna zegoen lekuan orain agirre ihartu bat besterik ezin daitekeela aurkitu...

Jauzi azkar batez armairurantz abiatu da. Artegatuta dago, eta aurrera ateratzekotan-edo maria pixka bat erretzea otu zaio. *Apika honela lasaituko naiz.* Apaleko goialdean begiratu du. Bai, hortxe dago betiko legez beirazko potea. Alboan papera, Smoking, kartoizko kaxatxo gorrian. Belar puxka batzuk bota eskura, xehatu, igurtzi, papera atera, maria gainean ipini, eskuak bata bestearen kontra jarri... Iieepaa belarra paperera. Eskuineko eskuaz filtroa jarri, buelta pare bat eman, txistuaz lekeda busti, hatza

pasatu eta listo. Sua eman dio, eta horren ostean tirakada luze eta sakon pare bat. Ane orain hobeto sentitzen da, nostalgiko xamar.

Soaldi galdua luzatu du hormarantz, bentana ondoko hormarantz. Ez dago. Harridura eta arretaz begiratzen du berriro. Ez, ez dago. *Ea ea, hola hola? Ez da posible, atzo hortxe berton zegoen. Kabendios! Non dago?* Anderrek eta berak iaz Karibeko hondartza hartan biluzik hartutako argazkia gordetzen zuen koadroa ez zegoen, eta noski argazkia ere ez. *Ez da posible! Zer uste du horrek, ez du inongo eskubiderik hori egiteko!* Ane kajoietara hurbildu da, astiro-astiro zabalduz goikoan hutsune nabarmena dakusa. Anderrek kanpoan egin zuen urte osoko gutunak eta Anderri hartutako argazkiak desagertu dira. *Ezzzz!*

Ane etsiturik dabil, amorruz beterik, bizitzako atal oso bateko frogantzak desagertu zaizkio, azken urteotako harremanaren aztarnak. Oroimenen ordez arranguraz beteriko zulo beltz bat besterik ez da lotzen. Anderrek ez du ospa egin berak bakarrik, iragan hurbilaren lekukoak daramatza: Ameriketatik igorririko maitasun gutunak

eta elkarrekiko argazki bilduma. Ez ditu jeans zahar batzuk eta galtzontzilo bat besterik utzi... eta bere presentzia izanaren usaina gelan.

Ondorengo goizean Ane berandu iritsi da antzokira, kideak zain ditu eta beraien begiradek ez dute eskaintzen inongo azalpenik emateko aukerarik. Ileak saski-nahaski eta betilun doa. Mutu korritu ditu karrajuak, apenas egunon hotz batez ebakita. Apaingelan aulki gainera jausi da; hankek indarge ez dutelako gehiagorik jasaten. Ispiluan aurpegi demakratu bat besterik ez da ageri, atso zahar batena izan daitekeen aurpegi gastatua, atzo baino hamabost edo hogei urte gehiago islatzen duena.

Azkenik borondate indarrak eraginda eszenatokira igotzen ausartu da. Atzoko dozena erdi aurpegi ezagunak –edo agian gaur baten bat gehiago– begira ditu. Lanordua da eta ez dago erruki ez gupidarik, lana gehiagoko barik. Zuzendaria jaiki eta eszenatokira heltzeko falta zitzaizkion zazpi eskailerak gainditzen ditu bananbanan. Aurpegian haserre gordea igar dakioke.

– Berandu gabiltza eta arin hasiko dugu. Ea gaur esfortzu bat dagizun gauzak ondo ateratzeko. Ea, berriro azalduko dizut hasieratik. Condor legioko hegazkinek Gernika bonbardatu zutenean ez zen kasualitate hutsa izan, arrazoi zamatsuak zituzten hautatzeko. Gernika zapuztu, erre eta hondatu zutenean aurreko historia guztia istant batean ezabatuko zutelakoan zeuden. Euskaldunok elkarrekin emandako mendeak zuhaitz bat botatzean desagertuko zirela zeritzoten. Baina ez, ez zen eta normalean ez da horrela gertatzen. Batera bizi izan duzun esperientzia ez da deuseztatzen bat-batean mapatik kendu arren. Argazkiak eta dokumentu oro lapurtu arren, jendearen oroimenak askoz hondar sakonagoak uzten ditu, eta izan dena ez da azukrea legez kafean urtuko. Hartu kontuan eta hasi zaitez, gerokoak gero, denborak profitatu edo ez berdin-berdin korritzen du eta.

Erre

Joxean Sagastizabal

Susa 14-15 / 1985eko uztailean

Esnatu egin zen, lo ederki asko egiteak ematen duen freskotasunagatik oso umore onez; salto batean ohetik atera eta leihoa zabaldu zuen, birikak udaberriko aire freskoaz betez. Mundua jan behar zuen egun horretan.

Lanera hogeita hamabost minutuko bidea, normalki autobusez egiten zuena, baina orduan ez, inolaz ere ez; kartsuki ekin zion oinez, abesti bat ezpainetan.

– Aiii!

– O! Barkatu, ene, eta aurpegian gainera!

Emakume hura lagunari auskalo zer ari zitzaion esplikatzen, hain modu adierazkorrean non zigarroa pasatzen zenaren matrailean iltzatu baitzuen.

«Barkatu, arren» eta antzekoei irribarre triste batez erantzun eta bidean aurrera jarraitu zuen; autobusaren zain jarri zen, markaren bat gelditu-ko ote zen beldurrez.

– Egun on!

Aurpegia jiratu eta kezko laino batean sartu zuen, eztulka.

– Zer? Katarroa, ala?

Zakartutako eztarria txistua irentsiz samurtu eta morrosko bat ikusi zuen, purua ezpainetan irribarretsu begira.

– Katarroa? Hire puru nazkagarri hau, mozo-lo! –erauzi eta zapaldu egin zuen.

– ...bere onera etortzen ari da.

– ... non...zer gertatu zait?

– Gizon batek egundoko muturrekoa eman dizu, hara!

– Zer?

– Ba hortz bat kili-kolo daukazula, hobe duzu ateratzea.

Hatz erakusle eta lodiaren artean hartu zuen, bi malko zirristatu zitzaizkion. Altxatzen lagundu zioten, «eskerrik asko» esaterakoan hutsune hotz mingarria.

Hotzikarak hartuta, herrenka, eserleku batera joan zen.

Lasaitzeko ahaleginak egin eta lortu ere zuen, faja estu batek arima estutzen bazion ere.

Hamabost urte inguruko neska panpoxa bat eseri zen aurrez aurreko bankuan; minigonak izter xamurrak ageri uzten zizkion eta mutilaren jelatutako gorputza epelduz joan zen poliki. Birjintasuna, xalotasuna zerizkion gaztetxoari.

Neskak eztiki begiratzen zion, zutitu zen; halako poz zoro batek astindu zuen, bazetorkion irribarretsu; erdizka ikusten zizkion titi goxo horien babesa nahi zuen.

– Surik baduzu?

Lepoa bihurritu zion; espetxean funtzionario guztiek kea botatzen diote.

Espaloirik gabeko hirirantz

Mikel Untzilla

Susa 17 / 1986ko apirilean

ZORTZIAK

... eta mahaitxoan sinadurarik gabe utzitako (aurkitutako) oharraren letrek hitz egitean eztarritik ateratzen zaizun ahots fin, histerikoa gogorarazi dit.

... eta berehala konturatu naiz bart aipatu zenidan joan beharra zeure neuronen eldarnioa besterik ez dela.

... eta idatzi aurretik txokolatea gosaldu duzu paperean utzi baituzu zure aho zabaleko enpasteek gaur goizean eraman duten kolorearen berdina.

... eta berehala konturatu naiz ez dudala inoiz, inon, zure begien kolorerik ikusi.

... eta mahaitxoan sinadurarik gabeko oharxo bat utziko dizut (aurkituko duzu) eta oharraren letrek hitz egitean eztarritik ateratzen...

HAMARRAK

Tekadiz tarautzea hain erraza balitz, jadanik/orain, hau irakurtzen ari garenok (aspaldi diot / edo bestela honezkero) bizitza txohitzen digun hainbat sujeta edozein txukela tiñu balitz bezalaxe (esaten dizuet tarautua izanen litzatekeela edozein akelarretan).

Edozein txaik tarautuko luke gainera bere tekadiz, txuta tarautzen den bezala tekadien artean gaztanbera dagigunean.

Han entzungo ziren han, nonbait entzun behar badira behintzat, txitxak otsaileko gauetan ahoskatzen dituen hizkiak.

HAMABIAK

Denboraren igarotze gogorrak bustitzen ditu gure neuronak eta zahartzaro zuhurretarantz bidali. Eta kuzkurtuz goaz. Eta espazioa den denbora hori pisu galanta bihurtzen zaigu gorputzaren egotean. Eta denborak ankerki zapaltzen gaitu ludian.

Eta hala ere ez dugu egunsenti berrietarantz begiratzen, hala ere zapaltzen gaituen denborari so egiten harrapatzen gaitu gauero etorkizunak.

ORDU BIAK

Aurikularraren bestaldetik zintzilikatzen den ahots meharrak galdetu zidanean, erantzunik ez zegoela eta, galdera bera itzuli beharrean aurkitu zen nire baita. Azken galdera. Agurra. Eta elektronikaren kable artean galdu zitzaigun ahotsa sekula guztian ez berreskuratzeko.

Eta nire baitan ideiek eztanda egin zuten, nire kaskezurra zipriztinduz oroitzapenaren garrez.

LAURAK

... badirudi gaurko berrogeita bi kilometro hauek eternitatearen konkrezioa besterik ez direla, zeren eta daramadan abiadurak ez baitit uzten zinta zuria hautsiko dudan momentua imajinatzeko posibilitaterik. Giharrek, beti irabazteko sortuak izan diren giharrek, aurrera naramate ene plaieretan murgildurik eta zinta zuria haustean biologiak ezin eskaini duen plazera sentiaraziko didate.

Irabazi egin behar dut. Irabaztean Vangelisen paradisuan sartuko naiz, heroi grekoen artean. Noka arituko natzaio Akilesi, hika Ulisesi eta mortal guztiek zuka agurtuko naute podium gainean eskuak altxatzen ditudanean. Lasterka egin behar dut, korrika egiteko programatuta banengo bezalaxe.

Ezin dut inolaz ere galdu.

Neuk hautsi behar dut zinta zuria.

Niri dagokit ohorea.

... eta bihar goizean, egunkarian, 265garrena iritsi naizela irakurtzean, irabazlea gorrotatu eginen dut Olinpon neuretzat gordeta zegoen tokia kentzeagatik.

BOSTAK

Zorura erortzen zaizu begirada. Minaz eta beste gauza batzuez hitz egiten digun egutegiaz bildu eta etorkizunaren inguderaino jasotzen dut. Bertan ankerki kolpatzen dut harrapaka edandako historiarekin eta geroztik ez dakusazu kolpearen eztanda bortitza besterik.

Zatiak biltzen ditut, burezurreko hutsuneetan kokatu eta zure malkoak torloju bihurtzen dira, torloju antzuak.

SEIAK

Zure begirada hautsia hartzen dut ene esku zimurtuetan oroitzapenaren balantza gorrian pisatzeko. Ispiluaren kontra jaurtikitzen dut aurpegia izerditzen zaizunean eta zure begirada itzultzen zait kosmosaren arkitektura antolatzen duen printzipio bakarra balitz legez, bizitza gatazka berria bihurtzen zaidalarik.

ZAZPIAK

Eskiatzeko betaurrekoetan ispilatzen dagik apur bat ere atsegin ez zaian mundu alua.

Edozein kazadora beltzetan zintzilik daramatzaan txapek mundu irreala, kolorezko argiz osatutako mundu irreal hori, gauzatu nahi ditek eta mundu alu honen ordez, musikak sortutako edozein kimera hezten duk hire baitan.

Ez haiz egunero bizi. Ez hago edozein unetan bizirik.

Bizitza motora igotzean hasten duk eta moto beltz horretan berribiltzen dituk izatearen bide

bortitzak utopiaren bila, abiaduran gauzatu nahian hire baitako kimera. Edozein kurbatan, motoaren atzeko gurpila irristatu eginen duk eta hire muinak asfaltoan sakabanatuko dituk (edozein goiz lanbrotsutan langarra sakabanatzen den bezala), eta gasofa usain artetik herioak eramango hau.

BEDERATZIAK

Distira. Izpi distiranteak inguratzen ditu gau giroko irudi telebisiboak. Bitartean, eta berehala, gorputz barrenetik bizi agortuaren izpiek kolpatzen dute bizitzaren azken taupada. Taupada azkentiarra, azkeneko hatsa. Eta hiltzen ari gara apurka. Eta geure bizitza hiltzen ari gara porlanezko basamortu honetan. Eta deus ez balitz gertaturen legez, olinpiadetan giza-makinak errekorrak apurtzen saiatzen dira, miseriaren batidoran.

HAMARRAK

Laser izpiaz inguraturik, misil antzeko irudi amorfoak ene ninietan iltzatzen direnean, neure niniek, bizitza (eta besterik ez) egon beharko lukeen tokian, heriotzaren izpiak dakuskite.

Zeren eta ez dago lekurik bizitzeko, ez baitago bizirik lekutzeko. Ez dago deusik. Misilak besterik ez dago, ez dago ene niniek dakusaten laser izpiaz inguraturiko desgizonaren heriotza gordina besterik.

HAMAIKAK

Zutaz hitz egiten badut
aditzetan mugitzen dira
desioaren behatzak
denboraren sekulan
eta denboraren sekulan
aditzaren behatzak
desioan mugitzen dira
zutaz hitz egiten ez badut.

HAMABIAK

Espaloirik gabeko hirirantz daraman bidaia luzeari hasiera eman bezain laster, begirada neketsua hiri urrun batera zuzentzen ari nintzela ohartu nintzen, eta askatasunaren mapan benetako hiri horretara zuzenduko ninduten bideberri zabalak, txidor fantastikoak kokatu nituen.

Atzera begiratzean, behelainoak estaltzen zizkidan ostean lagatako porlanak eta zorion plastifikatuak. Kontziente nintzen, bidaia jarraitzen nuen bitartean behintzat, ez zela nirekin egonen eskuz uki ez zitekeena besterik, eta egun horretan Euskal Herriko eme guztiak egunsenti gorriz erditu ziren eta gizaki zoriontsua sentituz espaloirik gabeko hirirantz abiatu nintzen.

Amaitu dezagun behingoz!

Amagoia Gurrutxaga

Susa 28 / 1992ko apirilean

Nere neskak deitu dit. Ilun zegoen autoa etxepean aparkatu dudanerako. Besoak poltsez gainezka ditudala igo ditut eskailerak. Ez dut giltzarik aurkitzen. Hemen daude. Atea ireki. Argiak piztu. Eta bidaia luze batetik heltzen naizen guztietan bezala, erantzungailu automatikoan bere dei bat daukat grabaturik.

– Kaixo! Ni naiz. Badakit datorren astera arte ez zarela hor egongo, baina ohituta nago zure zenbakira. Mesedez, deitu heldu bezain laster.

Ez du besterik esan. Inoiz ez du besterik esaten. Maleta desegin eta egingo dudan lehen gauza dutxa bero bat hartzea izango dela erabaki dut. Gauza asko daukat buruan. Deituko diot gero.

Komunean sartu eta txorrota ireki dut. Ez dut ezer pentsatu nahi. Lasaitzeko premia daukat. Dutxako ura nahikoa berotu da dagoeneko. Bustitzera noa. Baina telefonoa. Albornoza jantzi eta ziurrenik pasilloko zoruan lehortzean markak utziko dituen urratsak egongelara zuzendu ditut. Gero fregona pasatu beharko dut.

– Bai? Nor da?

Erantzunik ez.

– Bai? Esan?

Arnasa hotsa.

– Nor arraio zara?

Eten egin da. Isiltasuna berriro. Baina dena esana dagoela iruditu zait. Hotzikara. Gorputza busti didan urak aspaldi galdu du hasierako berotasuna. Dutxara noa. Pentsatu egin behar dut. Ezinbestekoa da.

Ur azpian, gorputza epeltzen zaidan bitartean, zer demontre egin behar dudan pentsatu dut neure artean. Eta putakume horrek ez du ezer esan. Gorroto dut. Nere neskari deitu beharko niokeela iruditu zait, ondoren kontrakoa erabakitzeko. Ez diodala inoiz deituko. Sekula ez. Baina hain da gozoa nire neska nirekin dagoe-

nean! Hain da trebea nire gorputzarekin jolasten duenean! Ez dakit zer egin. Eta nire neskaren odolaren usaina gogoratu dut. Ia gorpuztu egin den arte. Hementxe dago orain, ur beroaren lurrunetan ezkutatuta. Erotu egiten nau usain honek. Edo eroturik nago honezkero. Ez dut ezer ulertzen. Nahasiegia da hau guztia. Telefonoa. Berriro. Ez dit bakerik ematen. Eskegi egingo dut lehengo bera baldin bada. Ez dut telefonoa hartu ere egingo. Erabaki dut.

Soinu mekanikoak nire belarriak bortxatzen jarraitu du ordea. Ez dut hartuko. Ez dut hartu behar. Baina telefonoa ez da isildu. Eta ez nago gehiago jasateko prest. Agian hartu egin beharko nuke. Beste norbait izango da agian. Iturria itxi eta, albornoza bigarren aldiz janzten dudan bitartean, erregu bat luzatu diet infernuko nagusiei. Eskegi dezala egongelara heldu baino lehen. Mesedez eskatu diet. Baina infernuan ez dute errukirik. Niretzat ez behintzat. Eta tramankulu horrek orroka jarraitu du egongelara heldu naizen arte.

– Esan? Nor da?

– Kaixo! Zer moduz zaude? –erantzun dit hariaren bestaldetik nire neskaren ahotsak.

– Tira, ongi. Nekatu samar. Baina ongi. Eta hi? –galdetu diot.

– Ez oso ongi. Hilekoa etorri zait gaur goizean eta izugarrizko mina daukat.

– Hortxe naun segituan. Nahi al dun?

Erantzuna aldez aurretik badakidan arren egin diot galde. Ez naiz baiezkoa entzun zain ere egon. Aldatzeko behar dudan denbora eskatu diot eta berehala bertan izango nauela esan. Betiko agurra. Ez daukat denbora gehiegi. Levi's garbiak jantzi, zimurturik dagoen niki beltz bat eta banoa presaka, etxeko argi guztiak itzaliak daudela ziurtatu ondoren.

Kalean, baimenik gabeko laztan zakarrak egiten dizkit gaueko haize hotzak. Nola azalduko diot hau nire neskari? Ba al dago azaldu beharreko ezer? Hau ez da zuzena. Buruko mina daukat.

Lanbro dago autoa leku debekatuan aparkatu dudanean. Hogei minutu nahikoak dira nire neskaren etxera heltzeko. Bera ikusi gabeko hogeita lau egun ondoren batez ere. Automatikotik

deitzeko ere ez dit astirik eman. Zain dago ezkaratzean.

Musu heze batez agurtu nau eta hamaika galdera egin dizkit igogailurantz goazela. Bat bera ere erantzuteko aukerarik ez. Hobe horrela. Ez daukat hitz egiteko gogorik. Ez orain. Hamahirugarren botoiari sakatu dio. Eta ez dakit zer filmeko aktore nagusiaren gorputz zoragarria deskribatzen ari delarik, izter artean sartu diot eskuineko eskua. Ez du hitz jarioa eten. Ez diot modulazio aldaketarik nabaritu ere egin.

– Ikusi egin behar duzu. Ziur nago bere zangoak asko gustatuko zaizkizula –nire hatz erpurua bere sexuan barrena leunki sartu diodanean–. Niri asko gustatu zitzaizkidan behintzat –nire erpuru odoleztatua miazkatzen ari naizenean.

Bidaiaren amaiera iragarri du igogailuaren geldiketa bortitzaren astinduak.

– Konturatu al zara nigana etortzen zaren guztietan hilekoarekin egoten naizela?

Ez diot erantzun, irribarre egin baizik. Logelara heldu nahi dut. Nire neskaren logelara. Eta brusa askatzen hasi natzaio pasilloan. Hain bal-

dar, berak askatu behar duela azkenean. Titi beteak bilatu dizkiot. Galtzak kentzen lagundu dit logelara heldu garenean.

– Zergatik ez zara sarriagotan etortzen? Zergatik ez didazu deitzen?

Gona tiraka kendu eta biluzik jarri dut paretaren kontra. Eta bere haragi goriaz bete dut ahoa, betiko galderei ez erantzutearren. Ausiki egin diot. Ez dit eragozpenik jarri. Beti da berdin. Ohean etzan dut. Hasperen egin du atzazalekin azala urratuz eskuak sabeleraino jaitsi dizkiodanean. Begiekin jarraitu ditu eskuak. Mutu.

Bero dago nire neskaren sexua. Ukitu gabe ere badakit. Atzera egin dut ordea, eta hain ezaguna dudan azala laztantzen jarraitu dut. Indarrez, luze. Titiburuak izotza bezain gogor jarri zaizkion arte. Lehertzear. Gaziak daude ezpainekin inguratzen dizkiodanean. Haginkada emeekin gozatu dizkiot titiburuetako zirkulu ubelak. Eta ondoren, ahoa beherantz. Saihets artetik zilborrera. Alura zilborretik. Eta mingaina sartu hor. Ahal den tinkoen. Barruko beroak kiskali didan arte.

– Ez al dizu nazkarik ematen nire odola irensteak? –larritu da–. Ez dakit nola egiten duzun horrelakorik.

Irribarre egin diot. Hozka jarraitu dut aluan, gerriaz gero eta mugimendu erritmikoagoak egiten dituela ohartuta. Izterrondoetan behera doazkion odol tantak xurgatu ditut. Eta eskuineko esku osoa sartu diot barruraino. Soinurik ez beragandik. Soilik mugimenduak. Eskumuturretik arrosa koloreko zukua irristatu zaidan arte.

Ahora ekarri dut eskua. Gozoa dago. Hatzak gorde ditut miazkatu gabe. Nire neskarentzat. Bere saparen zaporea ezagutu dezan. Baina horrelakorik pentsatzeak soilik nazka ematen diola dio. Primeran. Dena niretzat.

Bere aldamenean etzan naiz begiak hertsita, arnasa lasaitu arte. Ez dut gehiago behar.

– Zure txanda da orain– aipatu dit doinu bihurriz.

– Eskerrik asko nitaz arduratzeagatik.

– Ez didazu eskertu beharrik. Ez dut zugatik bakarrik egiten.

Ohe ondoko mahaitxotik papertxo bildu bat atera du nire neskak. Zabaldu eta bi marra pres-

tatu ditu barruko hautsaren erdiarekin. Sudurretik sartu ditugu. Sabel gainean zabaldu dit beste erdia laztan batez. Pelbis hezurrean amultsu.

– Asko gustatzen zait zure hezur hau.

Eta hor gainean eseri du klitoria. Beti bezala. Mugitzen hasi da. Astiro hasieran. Nahi gabe arituko balitz bezala. Baina berehala bizkortu ditu gerriaren joan-etorriak, nire arnasari jarraiki. Gerriak eskuekin inguratu eta aurpegira begiratu diot. Inoiz baino politagoa iruditu zait une horretan bertan. Hemen. Ohe gainean. Ni menperatu nahian gehiago ezin arte bera erotu denean.

– Maite zaitut –esan dit dardara batean.

Badakit nik ere berdina esan beharko niokeela. Dena den, ez nintzateke egiatik urrunegi ibiliko. Isilik geratu naiz ordea. Beti bezala.

Nire alboan etzan da. Nekatuta. Masailak gorri. Polita dago. Hori ere esan beharko nioke. Isilik jarraitu dut ordea. Berriro hasi natzaio gorputza laztantzen. Horregatik musukatu dut berriro ere.

– Zer gertatzen zaizu gaur? Arraro zaude –esan dit.

– Ezer ere ez.

Eta ez diot gehiago esan. Musu eman diot. Eta barrez hasi da mingainarekin lepoa kilikatu diodanean. Eta barrez jarraitu du ahulki hozka egin diodanean. Eta horrela jarraitu dugu biak telefonoa berriro entzun arte. Nire neskari begiratu ere egin gabe eseri naiz ohean. Badakit nor den.

– Bai, esan?

Ezer ez.

– Nor da?

Isiltasuna.

– Amaitu dezagun behingoz!

Klik hotza belarrian. Botagura sentitu dut. Ohean etzan naiz eta nire neskari begiratu diot. Eskua luzatu diot, bere azala ukituz lasaitu asmoz. Baina nire neskak ez du nik ukitzerik nahi.

– Zer dun? –galdetu diot haserre.

– Zergatik hartu duzu telefonoa?

Ez dut galdera ulertu. Norbaitek deitu duelako hartu dut telefonoa. Norbaitek deitu didalako egunero azken lau hilabeteetan. Ni erotu nahian dabilen norbaitek. Eta azkenaldian lortu duela

iruditzen zait. Dena esan diot. Baita erotzear nagoela ere.

Zurbil dago nire neska. Berriro luzatu diot eskua, baina bera oheko txokorik urrunenera joan da. Lasaitzeko eskatu diot, eta horretan ari naizela, nire neskaren odol arrastoak ikusi ditut maindireetan.

– Ez du inork telefonoz deitu. Egun osoan ez du inork deitu. Zeure buruarekin hitz egin duzu duela bost minutu.

Izututa dirudi. Eta ni lasaitu nazakeen bakarra bera dela esan diot. Baina berak ez dit erantzun. Ez daki zer esan.Ohetik jaiki, gela zeharkatu eta kanpora irten da. Alferrikakoak izan dira nire hitzak. Ez du ulertu. Bere atzetik atera behar izan dut. Zergatik hertsi du komuneko atea kisketaz?

–Ireki atea, mesedez! Txantxetan ari nintzen.

Hau esan ahala konturatu naiz horrelakorik sinestea ezinezkoa dela. Nik ez nuke inoiz sinetsiko behintzat. Baina nire neskak sinetsi egin du. Eta atea ireki du. Gezur hobea asmatu beharko nuke. Ez zait ezer bururatu.

Komunean sartu eta nire neska ikusi dut baldosen gainean oinutsik. Hotzez dardaraka. Zangoetatik behera doakion odolak hari gorrizko galtzetak josten dizkio. Besarkatu egin dut, inoiz baino indartsuago. Maite dudala esan diot. Lehen aldia izan da ezagutu nuenetik. Lehen aldiz bederatzi hilabetetan. Bururatu zaizkidan hitz gozo guztiak esan dizkiot. Aurpegia ferekatu eta logelara eraman dut, bere egonezinaren arrazoia hitz hutsalekin ahaztarazi diodanean. Malkotan dago. Lasaiago. Ohean sartu dut eta bere aldamenean etzan naiz. Bertan egon naiz loak hartu duen arte.

Logelako argia itzali dut. Goizeko lehen argiak itsutu egin nau pertsiana altxatu dudanean. Irteerara abiatu naiz. Baina atea zabaldu orduko, telefonoa berriro. Egongelan hartu dut. Ez dut urduri jarri nahi. Nor den galdetu dut. Eta erantzunik ezean, eskegi egin dut. Logurak nago.

Nire neskaren etxetik irten eta kalea zeharkatu dudanean, auto gorri bat pasa da albotik. Gidariak ez nau ikusi ere egin. Oraindik kaleak bustitzen ditu lanbroak.

Ixodiae ventricosus

Pablo Sastre

Susa 25 / 1990eko martxoan

Lehendakari jauna:

John Herms Marticorena naiz, Halfway, Maryland, U.S. Armadako teniente biologoa, Fort Detrick-eko Institutuan bederatzi urtez ari izana. Zigor zeldetan inkomunikaturik naukaten Baltimoreko presondegitik idazten dizut. Papera eskatu eta ukatu egin didate, eta manera prekarioan idazten dizut, komuneko paperean, leiho zirrikitu batean gorderik izaten dudan lapitz txiki batekin.

Ari natzaizu, jauna, kontatzera natorrena publikatu dezazun, zeure herriaren interesean ez ezik, humanitate osoaren interesean baita.

Nire ama euskalduna da, Elizondokoa, eta seguru aski –aitortu egiten dut– horrexek deziditu nau, gure Armadaren proiektuaren berri eman

diezazudan. Baina gainera *esperimentu* hau... Bai, esperimentu batez ari naiz: baldin eta etzi etortzekoa den –eta ezagutzen ez dudan!– abokatuak «gutun» hau hemendik aterako badu...!

Pakistango Lahoren egin genuen aurrena –neu sartu nintzenetik, ari natzaizu: orduan sukar horiaren birusaz kutsaturiko eltxoez *(Corethrella brakeleyi,* berez Floridakoak) baliatu ginen; 81eko urtarrilean izandu zen hori; hartan Maryland, gure estatuko unibertsitario talde bat aritu zen, David Nelin irakasle ospetsuaren zuzendaritzapean. Gero, Nikaraguakoa izandu zen: gure Institutuan txertatu eta ugalduriko *Aedes aegyptis*-ez kutsatu baitzen Managua, eta bostehun mila lagunek sufritu zuten gaitza –Jaunari esker, hamar baizik ez ziren hil. Eta berton ere, orain dela gutxi, Fort Detrick-etik «ihes egin» (?) akain tiki batek *(Lyme* delakoak) sekulako ikara sortu du ipar-ekialdeko estatu batzuetako populazioaren baitan.

Ez naiz gehiegi hitz egiten ari, Ardanza jauna. Neure arriskuak ezagutzen ditut, baina zeuenak ere bai. Azkenekoz mintzatzen baldin banintz ere. Badakit fida naitekeela zutaz. Iaz gure herri-

ra egin zenuen bisitan ikusi zintudan telebistan, eta zintzoa zarela badakit. Nire ama poztuko zen, zeu ikusi bazintu. Baina hura hil zen, gajoa, kantzer batek eramanda.

Orain, berriz, Institutuan («U.S. Army Medical Research Institute» izena du) labezomorroekin arduratuta dabiltzala badakit, zein helburuz ignoratzen dut ordea. Hondar hilabeteetan, neure garaiz eta lekuz kanpoko solas batzuk zirela kausa, «puntako inbestigazio»etatik baztertu bainaute. Neure burua salatu nuen, azkarregi noski.

Bazkaltzekoa ekarri didate eta, pausaldi bat egina dut. Jan dut apur bat, nahiz neumokokoz kutsaturiko jana ematen didaten; o, bai, hala ematen didatela seguru nago. Zergatik ez zidaten emango, espetxe batzuetako zenbait presorekin praktika normalak bilakatu direla *dakidalarik*? Hauen ondorioak ez dira berehala sentitzen, baina egun batzuen buruan dardarizoak hasten badira...

Ardanza jauna, hona zer esan nahi dizudan: U.S. Army zuen herriaren kontrako akain eraso bat paratzen ari da. Zuen mendiak *Ixodidae ven-*

tricosus delako akainaz kutsatu gura dituzte. Akain hori ez da egundaino zuen herrialdeetan ikusi, AEBetan, Australian eta Afrika hegoaldean ageri da bakarrik. Akain horren emea, txistu bidezko toxina batez, gizakiengan *paralisia* eragitera irits daiteke. Has nadin hasieratik ordea.

Orain dela lau bat urte, Nafarroako probintzian U.S. Armyk praktikak egiten dituen landa batzuetan –horien izena ahaztuta daukat–, «gure» abioiek *Latrodectus mactans* espezieko armiarmetarik milaka batzuk jaurtiki zituzten. Beharbada zeuok ere ez duzue horren notiziarik izango baina, Espainiako militarrengandik heldu bide zen AEBetara kexa, hori zela-eta. Izan ere, araknidoak jaurtiki eta laster, eremu haietatik gertu kanpaturik zeuden soldadu espainol gazte batzuk eraso omen zituzten armiarma haiek, eta «*min zuriak* nozitu eta gero» –informe batean leitu ahal izan nuenez– «beren gaztetasunak bakarrik salbatu» omen zituen. Erakutsi zenez, armiarma hori *ederki* moldatzen zen Espainian, eta alde horretatik, gure biologoak pozik egon zitezkeen; alabaina, *Latrodectus mactans*-ek nonbait Zaragoza aldera *migratzeko joera* erakutsi zuen,

ez izaki hori gure militarren asmoa. Badakit gero haien hiltzeko pestizidak erabili zirela. Honetaz ez da noski, nik dakidala bederen, ezertxo ere publikatu.

«Esperimentu» horri, esatea gogorra da baina, *normal* iritzi nion. Hainbat horrelako...! Urrun joan gabe, New Yorkeko metroan ere askatu genituen uda batean arkakuso talde batzuk, hura zuzenean «Illinois Institute of Technology Research»ek eraman baldin bazuen ere... *[Frase batzuk ezabaturik originalean].*

Ni, hurrena, James Huxsoll komandanteak erakutsi zidan liburukiak harritu ninduen. *Spanish ticks* izena zuen, eta Minnesotako Unibertsitateko Nekazaritzako departamentuak egindako ikerketa zen.

James Huxsoll komandanteaz zer edo zer gehiago esan behar nizuke. Ni hemen preso egotearekin badauka zerikusirik horrek, berak salatu baitzuen Linda Bullardekin mintzatu nintzela...

Ni Fort Detrickera ekarri nindutenean, andrearekin eta geneukan alaba bakarrarekin etorri nintzen. Huxsoll teniente zen orduan, eta ni sarjentu, baina segituan egin genuen amistadea.

Arratsaldez Fox-en tabernan edo kantinan zerbait hartuko genuen elkarrekin, eta jai egunetan bi matrimonioak bildu eta haren autoan (Alfa America deskapotable bat) kostaldera joango ginen, edo beste norabait. Tipo ona zen orduan Huxsoll, tipo leiala. Gero berriz... Igual ez da izango hemen esatekoa, baina nik... Huxsoll honek eta nire andreak, badakizu...

Pasa den azaroan izan zen, abendutik hurbil. Goizean Huxsollek bere bulegora deitu dit eta *Basque Country*n negutzen diren hegaztiez ikerketa bat egiteko galdetu dit; hegazti bakoitzaren ezaugarri fisiologikoez (lumajeaz batik bat), eta ohiturez eta migraziogune zehatzez, eta elikaduraz eta bestez, lan bat egiteko beraz. Arratsalderako, gordekako artxiboak ikustatzeko baimentxartela eskuratu dit, beti bezala, ordu bietatik bostak bitarteko horretan.

Ni, aldiz, etxean bazkaldu –nire seme-alabekin!– eta ordu bietarako iritsi naiz Institutura; halere, badaezpadan, liburutegi orokorrean sartu naiz aurrena, eta Huxsollek eskatutako gaiaz liburu eder bat topatu dut justu, han, zuenean publikatutakoa, hango zoologo batzuen lana izan

ere –Aranzadi taldea, daiteke?–. Liburua hartu dut eta, lasai ikustekotan, etxe aldera abiatu naiz. Karreteraz bestaldeko lizarren azpian aparkatu Forda... Zertarako detaileak! Atea itxi zidaten eta logelako leihotik ikusi ditut, Huxsoll komandantea eta nire andre galdua...

Barkatu, Ardanza jauna, xehetasun horietan sartu naizelako. Dena batera gertatu baita... Nire seme-alabekin gogoratzen naiz, denbora gehienean, eta txit sufritzen dut. Ikusiko al ditut, inoiz...! Txoriez ari ginen. Ikerketa, hala eta guztiz, bururatu nuen, eta ez dut hartaz beste deus jakin egundaino. Baina *badakit* gure militarrak zertan ari diren: *Ixodidae ventricosus-ak negualdea Euskadin igarotzen duen txoriren baten –edo batzuen–* bitartez helarazi nahi dizkizuete. Eta zehatz, neronek ikusi eta ikasi dudanagatik ziurta diezazuket espezie hauetariko batez baliatuko direla: *Scolopax rusticola* (oilagorra) edo *Tordus iliacus* (birigarroa). Bigarren horri kasu emaiozue. Norvegiatik urtero, ehunka ale birigarro heldu baita zuzenki Euskal Herrira; eta, kasualki, Trondheim-etik gertu NATOk laborategi biologiko bat du.

Ardanza jauna, lehenbailehen *prebentzio neurriak* hartu behar dituzue. *Ixodidae ventricosus*-a agente aktibo bat duzue, baina *agente pasiboak* erabiltzea ere oso ongi daitekeena da. Eta bitaz ari naiz bereziki, jadanik munduko bigarren gerran erabili zirenak: *euli arruntak* eta –batez ere, oraintxe horretan ari dira eta– etxeko *labezomorroak.* Atxiki iezaiozue edozein foku arrotzi, eta ongi bijila itzazue zuen itsas-portu handienak, eta trenak orobat, litekeena baita intsektu horien *arrautzez beteriko kontainer* bat helaraz dakizuen (posibilitate horretaz mintzatu izan gara, behin edo behin, Institutuan).

Ardanza jauna, ez dut zuen herria ongi ezagutzen. Beti menditsua imajinatu dut, oso berdea, etxalde txikiak eta jende umoretsu eta gogorra. Bailaretan, berriz, inondik inorako industriak. Kultura zahar baten jabe zarete eta eutsi egin nahi diozue, eta nik horrexegatik miresten zaituztet. Nire amak ez zuen hartaz hitz egiten gurekin inoiz, baina osaba Jose Nevadatik etxera etortzen zelarik, eta biak-ala-biak euskaraz ari zirelarik, hura zeukan begietako poza! (osaba Jose, guk hala deitzen geniolarik ere, ez zen gure

familiakoa, baina Elizondo ingurukoa behar zuen, eta hari eskerrak heldu omen zen hona gure ama). Terrorismoa ez dut noski laket, baina zuk hartu bidea –autonomia prudent bat, Espainia errautsi gabe– oso ongi iruditzen zait.

Aise gastatzen da, komuneko papera! Eta arrunt txarra duzu, lapitzaz idazteko. Ohearen hankak daukan irrixku batean gordetzen ari naiz orrixkak. Abokatuari pasatzeko modurik...? Ez ezagutzea ere!

Hurrena orain dela bospasei hilabete suertatu zen. Zuei buruz zer paratzen ari ziren jakinki eta halako operazio batek izan zitzakeen ondorioez kezkaturik, neure kasa, Euskal Herriko geografia eta demografiari buruz ikerketa txiki batzuk egin nituen. Lurralde horietako populazioaren dentsitateak fuerte harritu ninduen. Hala behintzat, egun makal batez, zer bururatuko eta gure Institutuko *master* den Rohdendorf koronelari mintzatzea bururatu zitzaidan... Fox-en tabernan izan zen, kasualitatez. «Euskal Herriari buruzko esperimentu horiek, badakizu», esan nion, whiski basoa eskuan neukala. Lagunarte xelebre xamarrean ginen, horrexek animatu nin-

duen, ez nintzen bestela ausartuko eta. «Bai», erantzun zidan, galdera batez, pittin bat arrimatuz. «Jakinen duzu noski, zenbateko jendea bizi den hartan...?». «O, bai...!», erantzun zidan, irribarre batez, gehiago jakin nahirik. Zer esan behar nion, ba? «Nire ama hangoa baitzen, badakizu, zera...». Manera txarrean solastatu nintzen. Eta koronelak susmo okerrak hartu zituen nitaz. Astelehenean James Huxsoll, txerrikume horrek eman zidan haren partez abisu: «Politikaz arduratzen hasi al gara, Herms?». «Ez, baizik eta...». «Ez didazu ezeren azalpenik zor –moztu zidan hizketa–; baina are gutxiago zor dizu zuri koronelak». Eta hitzak bere mingain zikinaz gozatu eta gero: «Hemendik aitzina...». Farmazia zerbitzuetan ipini zidaten destino berria.

Handik hona, *Ixodidae ventricosus*-ak transmititu gaitzez zerbait jakin dut. Neure ustean hiru hauetariko batekin esperimentatzen ari dira: «Krimeako sukar hemorragikoa», «*Rocky* Mendietako sukar purpurazkoa» edota «Rickettsiosis» tipo bat, *Rickettsia conori* izeneko bakteriak transmititzen duena agian (horiei buruzko xehetasunak edozein medizina liburu espeziali-

zatutan topa ditzakezu). Jeneralean mortalak ez izan arren, sukar mota horiek zenbait kasutan odola arras moteldu dezakete. Rickettsiak berriz garunaren paralisia eragin dezake, eta alditan –ume koxkorretan batez ere– heriotza ere bai.

Nolanahi delarik ere, handik eta geroxeago, «Foundation on Economics Trends» erakundearekin jarri nintzen harremanetan, ez noski gure laborategietako ikerketen berri emateko asmotan –hori garestiegi pagaraziko zidaten–, baina bai neure ikerketak sakontzeagatik.

Berriz ere, maleziarik gabe jokatu nuen, eta horrexek galdu nau. Linda Bullard F.E.T.ekoarekin mintzatu nintzen pare bat aldiz, begiratzen nindutela susmatu gabe. Nire urratsen atzetik Huxsoll bera zebilen. Oker-jaio horrek...! Lindarekin «roilo» bat neukala zabaldu ez zuen bada! Eta situazio huraxe aprobetxatu zuten ederki, berak eta nire andre ustel xamar horrek, ni kalumniatzeko eta beren lotura azkartzeko. Bai, andreak utzi nau, eta umeak berarekin eraman ditu. Eta koronelaren aginduz, hementxe nago, ez jakin zenbat denborarako. Espia izatea lepora diezadakete, eta txarrena –berandu konpreni-

tzen dut– orain artean isilik egon naizena da. Inork ez daki nire berri eta beren esku naukate. Psikiatrikora eraman nazaten beldur naiz. Edo pseudomona batez garbitu nazaten...

Mesedez: *laster ekiozue* baina, epidemiarik gertatu ezean, *ez erabili kontragerra kimikoa,* giroa erabat izurriztatuz kontrako efektuak, kalte izugarriak nozi baititzakezue. *Kontragerra biologikoa* aldiz, para ezazue, ja. Gizonari zizt egiten ez dion *erlafin ehiztaria* oso erabilgarria da, akarido metastigmatikoen bizkarrean hozkatuz bertan lagatzen baititu bere arrautzatxoak, erlafin sortu berriek akaina barrutik jaten dutela. Onddoak, nematodoak, protozoarioak, mikroesporidioak eta birusak ere erabil ditzakezue. Epidemia zabalduz gero berriz, dudarik ez izan, intsektizidak erabil itzazue.

Neure ustez, honetaz ezer gutxi dakit baina, eraso «taktiko» bat izan daiteke zuen herriaren aurka burutu nahi dutena, *Low Intensity Warfare* baten aurrean proba gisa bat. Arma biologikoak, gogoratu, Ginebrako 1986ko iraileko nazioarteko Kongresuan guztiz debekatu ziren, baina «esperimentuak» *ez dira gelditu.* Zuen –eta mundu

osoko– mikrobiologo, parasitologo, genetista eta ekologoek badaukate zer eginik. Eta zuk, ekin, otoi, lehenbailehen defentsa-lanari, zeure herriaren alde saiatzen zaren horretan, humanitate osoaren faboretan ari baitzara.

Bere zeldatik,
John Herms Marticorena
1989, maiatzak 15

Casa Tomada

Kanko Ispizua

Susa 19 / 1986ko azaroan

Cortazarrek *Casa Tomada* idatzi zuela,
katixima berria otsoentzat
eta
alokairu orrietan zehar ihes.

Hartzazu kafea, Mari, besterik ez dago eta. Berau berotzeko ere ez daukagu butanorik, kanpoan erosi behar izan dut. Badakizu, termoagaz joan eta sei ebaki eskatu. Beno, beste inoiz ere antzekoa egin dugu. Bai, badakit oraingokoa azkena dena eta oraingoan urrunera goazena, baina ez dugu horregatik kafea hotzituten utziko. Egiozu putz bero badago. Ez, benetan, ez naiz damutzen; oraindik lehenengo gauez oroitzen naiz. Holan por holan ezagutu genuen elkar, zu tabernako barra atzean alkandora erreman-

gatuta eta ilea zapi gorriagaz lotuta. Koleta alde batera eta bestera astintzen ezetz esaten zenigunean. Ezetz esan eta atzera bueltatzen ginen zeure menosprezuak sufritzera. Oso gustuko genuen zure aurpegi haserretua eta mugimendu elektrikoak. Aita oso pozik zebilen gugaz, oso kliente fijoak ginen eta. Hantxe zegoen beti «Mari, zerbitu egiezu mutiko hauei, ez duzu egarri direla ikusten ala?». Eta zuk, ahotsa jakin dakizun garratzen jarrita, «zer gura duzue?» itauntzen zenigun. Gero kulturetxearen lokaletatik bota gintuzten eta norberak bere bidea hartu genuen. Ni Bilbora eta besteak batek daki nora. Urteak pasatu ziren berriz ikusi arte; oraindik ere gogoratzen zara? Kristorena zeneraman gainean, speeda hartuta zenuen eta begiak distiratsuak. Han zenbiltzan neuri begira eta begira zeure atzamarrok hormako kristalean jolasten zutela. Gogoratzen zara? bakarrik zeunden une hartan, atzamarrok kristalean olgetan eta zu irribarrez, distiratsu. Halako batean, eskuak atzerantz egin eta koleta bat egin zenuen. Eta irribarrez hainbatetan ezetz esan zidan koleta erakutsi zenidan. Eta ahots goxoaz «ez duzu gura?»;

berbak zeure begietatik irristatzen ziren. Geroztik beti, goizetan begiratzen dizudanean, berdin ikusten zaitut; eta batzuetan lotsatu egiten naiz, ondo dakizun moduan. Baina zeure aitak ez nau begi onez ikusten izan. Lehenago bezero ona izan banintz ez du sekulan ere onartu guk biok ez ezkontzearena eta holan bizitzearena, etxerik etxe eta herririk herri. Bai, neu ere lokartzen hasia naiz, kafea edateari ekin arren. Iluntzera arte ez da inor etorriko, ordurako urrun izango garela. Eurek pentsatu baino urrunago. Gomutatzen zara plazan bizi ginela, zelan patronoa etorri zitzaigun periodikoa eskuan eta arrantzaka? Jada bazeukan geure hurrengo pisua boligrafo gorriz markatuta; gu botatzeko etorri eta bageunden urrun, bere arrantzak entzuten ez diren lekuan. Koitadua! Ez dakit konturatu zinen, baina polizia eta guzti izan zen gau hartan gure inguruan. Komisaldegian sekulako garrasiak entzuten ziren, biok ginen elkarren bila, zeu bortxatzen zintuztenean. Inpotentziak eraginda negarrez eta garrasika. Ez diegu sekulan ere barkatuko, ez. Ubeldurez beteta zeunden irtetean eta neu kartzelan, urruneko leku horretan zugaz el-

kartu ezinean. Koleta beltz horrekin olgeten zenduen baina. Edazazu kafea hotzitu baino lehen. Nerau ere lokartzen hasia naiz eta erdia baino ez dut ikusten, baina zeure gorputzaren epeltasuna sentitzen dut oraingoz. Laster hotzitu egingo zaizu gorputza, geroxeago biok elkarregaz izateko.

AUZOKO ORRI PARROKIALEAN
AGERTUTAKOAREN ESTRAKTOA:

»...Lehen egunean gertatu zena da gaur eguneko egoera azaltzen duena. Drogadikto bikote bat agertu zen hilik sobredosia dela medio. Ardi galduen gisa jokatzen duten gazteek ez dute inolako laguntzarik jasotzen drogarengandik; paradisu faltsu bat izan ezik. Hor ikusten da egoera sozial honen helburu gabezia...».

Maitalea adiskidearekin geratzen denean

Mikel Antza

Susa 28 / 1992ko apirilean

Bazkalostean, ohi bezala, laino zuri eta lodiek abuztuko eguzki boteretsuari egin zioten leku ortzi zalantzatiaren erdian. Itzalak ezkerraldera jausten ziren hauts kapa fin batez estalitako hondartzan. Musuen hezea azal kiskalietan. Itsas marea beheran belaontzi eta yate ugariek eta arrantzontzi apurrek beren sabel gosetiak algaz tapizaturiko ohantzean etzaten zituzten. Eskuen karizia nagiak krema oliotsua hedatuz.

Hiru gazteak ahuspez etzanik zeuden koloretako toalla zabaletan. Neskak, bi mutilen erdian, azal zuria zuen, ileak beltz, eta soinean gorputz osoko bainu-traje gorria. Inguruko emakume orok erakusten zion bularraldea eguzkiari, titien

argizariko museo batean bezala. Hondartza sarreran, zakurren paseoa eta kotxeen sarrera debekatua zegoela adierazten zuen kartel bat zegoen.

Neska, gorputza itzuliz, eseri egin zen. Itsaso bareak plastikozko hondakin batzuk garraiatzen zituen ganoragabe. Bere eskuinean zegoen mutilak eskua luzatu eta neskaren orkatilako hezur lodia oratu zuen.

– Zer ordu da?

Kaioen karkailak entzun ziren arroka inguruan, eta bi olatu indargeren aparrarekin batera, neskaren ahots gozoak erantzun zion:

– Ordu-erdi barru hasten haiz.

Bakantzak hasi zirenez geroztik aldaketa gutxirekin errepikatzen zen erritua zen. Mugimendu guztiak barneratutako aginduei men eginez bezala gertatzen ziren. Elkarrizketak berak ere ez zuen luzaro irauten hiru gazteen artean. Solasean iristen ziren hondartzara. Bi mutilek jean galtzak eranzten zituzten artean, neskak toalla baten laguntzaz janzten zuen bainu-traje gorria.

Mutilak lasterketa azkarra egiten zuen ertzeraino neskak olio krema babeslez gorputza igurz-

ten zuen bitartean. Igeri saioa egin ondoren itzultzen ziren mutilak, ileak busti, hortz zuriak nabarmen uztailak beltzarandutako azalean. Toallan eserita eta eguzkitarako betaurreko beltzen atzetik begiratzen zituen neskak. Segailak ziren biak, beso indartsuak, giharrak artifizialki hanpatutakoak izan gabe, hanka iletsuak eta ibilera axolagabea.

Toalla gainera jausten ziren, neska hondarrarekin ez zipriztintzeari jaramonik egin gabe. Neska kexatu egiten zen, eta eskuineko mutilak ostera ere eguzkiari bizkar emanez etzanda zegoen neskaren gorputza tanta gaziz ereiten zuen.

Gero, bainu-traje gorria tenis-sare gisa erabiltzen zuen bi mutilen elkarrizketa abaildu egiten zen apurka, esaldiren bat erantzunik edo errepika gabe geratu artio. Ezkerreko mutilak bazekien murmurioen ordua iritsi zela. Olatuen danbada indartzen zen, kaioen karkailak ozenagotzen, ingurutako nesken bularrak nabarmenagotzen. Eskuineko mutilak beso oraindik hezea neskaren bizkarraren inguruan biltzen zuen eta bere ezpainak belarriratuz harengan irribarre es-

trainioak pizten zituen esaldiak lotzen zituen. Ondoren, isildu egiten ziren beraiek ere. Isilik zeuden hirurak, alboko fm irrati bati entzungabe adi. Eta ordua iritsi zenean galdegin zuen eskuineko mutilak:

– Zer ordu da?

Makinalki janzten zuen galtza bainu-traje zabal eta hezearen gainetik, koloredun nikia gero, sandaliak eskutan hartzen zituen, musu ematen zion masailean neskari eta hogeiren bat metrora aldentzerakoan eskua altxatzen zuen burua itzuli gabe. Eskailerak igotzen zituenean, neskak «kuraia on!» botatzen zion.

Bere adiskidea lanera joaten zenean ohizko komentarioak egiten zizkion ezkerreko mutilak neskari, ez zela mauka ederra egunero lauretan lanera sartu beharra, baina zortea ere bazuela lanik topatu zuelako. Eta gai horren inguruko hainbat aldaera. Gero beste zer edo zertaz mintzatzen ziren, eta azkenerako eguzkiari begira etzaten ziren biak.

Orduan ezkerreko mutilak, bere adiskidearen maitaleak bainu-traje gorriaren goiko partea pixkanaka-pixkanaka beherantz biltzen zuela irudi-

katzen zuen, alu aldeko lehen biloak hazten ziren mugaraino, bere titi gozo zuriak eguzki gordinaren menpe geratuz. Neskaren gainera makurtzen zuela burua, titi-punten inguruan ezpainak hertsiz eta mihi-puntaz titi-burua milikatzen ziola.

Arratsaldeko zortzietan, ohi bezala, berriro ere hirurak herriko enparantzako tabernako terrazan, garagardo fresko banaren inguruan, elkar topo egiten zutenean, adiskideak begiak desbideratzen zituen bikotearen musua gauzatu bi istant aitzin.

S.U. in memoriam

Joserra Utretx

Susa 20 / 1987ko apirilean

1937ko apirilaren 26a

Eguerdi ostea zen S.U.-k aroztegia utzi zuenean. Arriskualdietan abisua emateko kanpaiak jotzen ziren sirena ordez, eta orduan ere halaxe jo zuten, baina jendeak, ohituraren poderioz, ez zien kanpai hotsei jaramon handirik egiten. Gainera, han ez zegoen inolako «objektibo militarrik». Horregatik, hamasei urteko mutil hark lasai asko hartu zuen bizikleta eta, lana amaitutzat emanda, batere susmo txarrik gabe, etxerako bidean jarri zen.

Erretiradan zetozenek zelanbait errefugio modukoak zituzten atonduak etxe, fabrika eta denda sotoetan. Oraindik ez zen den-dena galdutzat ematen, nahiz eta airetik zetorren eraso-

ari frente egiteko aukera eskasak izan. Non edo han geldiaraziko zituzten. Bai, sinetsi beharra zegoen, hala gertatuko zela. Osterantzean, akabo! Sinetsi beharra zegoen.

S.U.-k astelehenero legez baserritar ugari aurreratu zuen tailerretik etxerakoan: zaldi karroetan edo asto gainean edo bestela oinez zihoazen bendeja saltzaileak. Andrazkoak gehientsuenak. Ia denak ezagunak. Manilarretik eskumako eskua altxatu eta agur eginik, sendo eragiten zien pedalei kaminoko trangoak txuliatuz.

Urdaibai deritzan dorretxe pareraino ailegatu zenerako, hegoaldetik, bere bizkarretik, durundi gaiztoa sumatu zuen. Bazekien zer zen hura, ondotxo jakin ere. Hura ez zen «Goicoechea traidorearen» aireplano baldarrak atera ohi zuen burrundara ezaguna. Bizikleta muna bazterrera bota, eta estularrian nora barik egon ondoren, txaraka artetik gorantz zihoan estrata batean zehar aldendu zen astrapalan. Andra-gizon gazte bi ere haraxe ingurura joanak ziren, izuturik, gordeleku bila. Kirikolatzaren antzera ezkutatu zuen bere burua otatzan barrena. Arnasa etenik, bihotza punpaka, esperolarrian egon zen harik eta

metrailamendua pasatu zen arte. Ke-haritxo zuriak ikusten zituen abioien muturretatik irteten eta, aldi berean, hezurretaraino sartzen zitzaion txistu-hots andana. Otarantzen sastadak baino mingarriagoak ziren lurra harrotzen eta urretx anporrak brintzatzen zituzten txistu-hots haiek.

Zukuruztua apur bat pasatu eta seneratu zenean, kaminora bueltatzea otu zitzaion, jakinik, hala ere, basoz baso arrisku gutxiago zuela etxerainokoak. Beste bi haien paraderoaz arduratan zegoen. Estrataren albo banatako ostondo guztiak arakatu zituen zehatz-mehatz. Baina alferrik. Estrata gaineko oinbidera bueltatu zen berriro. «Nunbait onik urten juek eta alde egin», esan zuen bere artean, eta beherantz abiatu zen. Eta hantxe ikusi zituen biak, elkarren ondoan, hilda. Mota gainean zeuden, esku-bonba batek triskaturik, ezkutatzeko astirik gabe harrapatuak, antza. Ez zen ausartu gertuagotik begiratzera ere.

1937ko uztaila

Nazionalek Bilbo hartu zutenetik egunero zabaltzen zen albiste txarren bat. Gertakizunek hartu zuten jitearekin, S.U.-ren amak bazekien bere senarrari egotzitako denuntziak aurrera joko zuela. Hala ere, ezin zuen konprenitu auzo berekoa zen jauntxo haren amorrua. Frankistak sartu arte, ezkutuan egon zen Sollube aldean. Baina bere aldekoek goia hartu zutenean, txakur amorratua legez hasi zen, bitsa dariola, herritarrak hondatzen. Nahikoa zen atxakiarik txikiena, baserritar inozoren bati burua berotu, andre txatxalaren baten inbidia biztu, eta herrian karguren bat izan zuenari denuntzia sartzeko. Halaxe egin zioten bere senarrari, basotik burkada bedarra zekarrela, soldaduek eraman zutenean.

Hasieran –errubakoak ezin txarrik pentsa–, bidezko ziren diligentziak egin ondoren, dena argituko zela uste zuen. Heriotza zigorrarena esan ziotenean, ordea, estutu egin zen. Seme nagusia Bilbora joana zen; «gizajoa», pentsatzen zuen, «hamasei urterekin eta etxeko jornal mehe bakarra zekarrena ihesian...». Zer egin jakin ez, eta

etsi-etsian herriko abadearengana jotzea erabaki zuen. Urtebeteko ume txikiari titia eman eta, lokartu zuenean, elizalderantz abiatu zen. «Abadearen bihotza ez da harrizkoa» esaten zuen berekiko, «badaki berak nola Errepublika aurreko sasoi ilun hartan, nire senarra eliza ez erretzeko guardia egiten egoten zen, eskopeta eta guzti, euskaldun guztiak legez, kristinau on zelako». Abadea paseoan topatu zuen. Agertu zion bere estuasuna eta elizaldetik alkatearen auzunera doan bidea elkarrekin egin zuten. «Baietz eta baietz, jabetzen zela bihotzean zuen arranguraz, estuasun larriaz, eta trankil egoteko». Bideguru-tzean apartatu ziren, alkatearekin eta kaporalarekin berbatuko zela agindu ondoren. Hurrengo egunean, alkatea landa bazterrean ganadu-jatekoak egiten ikusi zuenean, badaezpada ere, harengana jo zuen. Hurreratu zitzaion eta berbetan hasi orduko, alkateak kodaina kirtenean apoiatuz, begiratu hotzenaz, erdi destaina erdi arbuiozko berba bat jaurti zion aurpegira eta bizkarra eman. Bai, bizkarra eman zion eta bere ganaduentzako bedarra ebagiteari ekin!

1939ko uda

Razionamendu txartelekin batera, S.U.-k lana galdu zuen eta soldadutzara eraman zuten, faxista errebelatuei zerbitzu militarra egitera. Estella aldean zorri eta akainekin, gose eta lotsarekin borroka egin ondoren, Bartzelonara joatea egokitu zitzaion. Hiri ederra iruditu zitzaion. Hiri ederra benetan, agintari berri haien eskuetan egon izan ez balitz. Zeren Cuartel de Gerona delako hartan lizuna hormetan eta litsa ohapeetan erruz bil zitekeen, baita sarjentu petral eta arima beltzeko ugari ere, baina sasoiko mutil gazte batek espero zezakeen bizimolde librerik ez zen inondik ageri. Hori bai, militarrak ororen jabe zirenez, soldadu arruntei lagatzen zitzaien asaskua, arratsalde sargorietan zezen korridak ikustea izaten zen. *«Debalde festa preparatzen det...»,* kantatuko zuen gero, Urquinaonan barrena, giputz hark, eta bokarta-ogi-t'ardoa jatera sartuko ziren ohiko tabernan. Eta nola jakin gabe, Polizia Militarraren eginkizunetan arituko ziren kaleetan, kabo narras bat eta soldadu

parea, hainbesteko boterea nondik eta nola eskuratu zuten jakin gabe.

Baina baziren bestelako gauak eta goizaldeak ere. Konpainia osoa lo sakonean zegoela –S.U.-ri esana zioten desordu haietan etortzen zirela–, sarjentu ipurterre hura eta imajinaria, oherik ohe ibiltzen ziren gau hartarako pelotoia biltzen. «Gaua gauekoentzat» esan zuen goizalde hartan S.U.-k, baina ez zion gauza handirik balio izan. Izara lakar eta aldi berean hain goxo haietan betiko loak har zezala desiratu zuen; baina bere ohe-lerroko bat iratzartzen zutela sumatu zuenean, arnasa estutu eta bihotza larritu zitzaion. Lo plantak egin zituen, baina alferrik. Sarjentu hark eman zion astinduarekin ez zuen beste erremediorik izan jaikitzea baino. Hamar bat izango ziren. Patioan jarri zituzten formazioan. Fusila tente eta uhalak ondo atonduta. Gero, Asaltoko Guardiakoak etorri ziren; beste hamar. Modelora joan behar omen zen. Altuenak eta itxura lerdenekoak aukeratzen omen zituzten, baina tartean baziren boluntarioak ere. Lerroz lerro igo ziren bus tankerako auto militar tetxu gabeko hartara. Bidean, S.U.-k Larrinagako kar-

tzela zuen gogoan. Bere aitaren akabua imajinatzen saiatu zen, baina malkoek traizio egin zioten, eta goizaldeko hozkirrian, argi hitsez argitzen zuten farolei begira geratu zen. Banaka batzuek pattarrari ematen zioten gogotik.

Modelora iritsi zirenerako, presoak meza entzunda eta elizaren azken sakramentua hartuta zeuden. Dena prest zegoen. Batzuk negar-zotinka, bestetzuk lurrera begira, bus balbe hartara igoarazi zituzten. Ganadua bezala estutu ziren leku apur hartan, borrero eta errugabe, denak nahasian. S.U.-k ez zuen adorerik, ez barrenik gizajo haiei begiratzeko; bera ere haietariko bat zen eta ezin zien aurpegira begiratu. Eta orduan, Badalonarako bidean zihoazela, bere aita zenak merkante hartan maiordomo zebilen garaian, Villagarciaraino eraman zuenekoa gogoratu zuen. Bost urteko mutikoa zen bera, eta ama ere barkuan zihoan, baina gonbitoka, eta aitak popan lotu behar izan zuen okerkerietan hasia zelako, kareletik uretara jausteko arriskuan. «Arrainak harrapatzeko» pentsatu zuen; «gizonak fusilez harrapatzen dira eta hemen doaz axuriak bezala».

Badalonarako bidean busak eskumatara jo zuen eta burdinbide estu batean sartu zen. Hedoia garbi eta izarreztatua zegoen, soroak ilun nabarrean. Izarren badaezpadako argiak larrain lekaro batera ailegatu zirela erakutsi zion, desordu ikaragarri hartan, S.U.-ri. Jaitsi ziren, jaitsarazi zituzten, eta aginterik gehiena zuen ofizialak ezponda baten kontra jarri zituen presoak. Soldadu boluntarioak eta asaltokoak bi lerrotan tinkatu ziren, fusilen ahoak haiei begira. S.U. albo baterantz aldendu zen negarrez. Preso batek garrasika eskatu zuen Catalunyako Plazan fusila zezatela. Ofizialak agindua eman zuen. Sei itzal jausi ziren lurrera.

Celosamente gordea

Jon Baltza

Susa 19 / 1986ko azaroan

Gure herriak
oso gauza berezi bat
egin dezake
malabaristen erara:
behingoz independentzia lortu
baina euskara galdu.
(Orduan, kontsolatzeko,
Europako sudur handienen
herria izango gara)
Josean Bueno

Ninchen un niño etorri senean la Nueva Era, eta todo asi sen a isan diferente. Yo no desaket acordarme, pero por pequeños retazos que guelditu dira, de periódicos eta cosas así (todos celosamente gordeac, de lo contrario no egongo ninchen aquí hablando), imaginachen dut cómo sen

el mundo entonces, cómo jolasten guenuen, baina sobre todo cómo ichegiten genuen. Isango nituen unos cuatro años cuando, según esan didate, inplantatu sen el Decreto de Lenguas No Oficiales, en el cual sheechen sen muy claramente en qué lengua minchatu bear guiñen todos, es decir, nai espaguenuen isan uno de aquellos desagertuak que asi siren a proliferar. Todos guenuen en la familia algun que otro tío edo prima que un buen día, eta sin jaquin cómo, uchi suen de asistir al trabajo, de joan con los amigos, de eranchun al teléfono: a partir de entonces, ya nadie más sequien de él.

Al comienzo mis padres eta los demás padres de su generación saiatu siren en conservar el idioma que ichegiten suten desde siempre, eta por las noches, a escondidas, archen buen cuidado de que nadie, ni siquiera los más allegados amigos, enterachea, nos sijoasen iracasten como aal suten su lengua, la que tanto maite suten. Pero todo isan sen inútil, todos los esfuerzos en vano, la represión de los Guardianes de la Pureza Idiomática sen tan fuerte que poco a poco joaten siren desagerchen todos, eta, con

ellos, el lenguaje que cada vez esaguchen suen menos gente.

Algunos pocos lortu guenuen aprender algo, pequeños rudimentos, pero que no guenesaquen practicar con nadie, más que en unos inacabables monólogos interiores que eraman guinchaqueten a la locura. Yo mismo exponichen nais excesivamente al idachi estas líneas, fruto de la nostalgia eta de mi ignorancia. Pero cada día necachen nau más al ecarri a la memoria los pocos retazos que icasi nituen. No daquit cuántos garen, cuántos más como yo egongo diren repartidos aquí eta allá en todo el país. Tal vez muchos edo tal vez nais el último superviviente de una vieja lengua que yo, viejo también, saiachen nais en escribir.

Dena dago dekadentzian, dena doa hiltzera, nire bizitza eta mendi elurreztatuen atzetik sartzen ari den ekhi anaranjatua. Orain ez dut gehiago borrokatuko, orain neke bainago, eta geratzen zaidan gauza bakarra Guadalquivir ibai arro honetan heriotzaren bisita lasaia itxarotea da, harekin batera akaba nadin, eta menturaz idioma viejoaren azken musikak nirekin.